



San Juan jaiak ostiral honetan hasiko dira, ekainaren 24ra arte

Andoaingo tabernarik zaharrenaren familiaren esku egongo da jaien hasierako suzeria botatzea.

Data zehatzik emateko modurik ez daukagun arren, pentsatzen dugu tabernak Elizondo izenarekin honezkero ehun eta hogeitau urte izango dituela. Orain urte batzuk, adinekoek eztabaida eduki zuten ea zein zen Andoaingo tabernarik zaharrena: Exkerrenea ala Elizondo. Hortik atera kontuak”, dio Jose Luis Elizondo etxeko nagusietakoak. Ekitaldia gerturatzeko ari da eta ezin ahaztu duela hilabete gutxi zendu zen Trini Goñi etxekoandrea. Jende guztiarekin ondo konpontzen zekien pertsona horietakoa zela dio bere senarrak, “bera zen familiaren eta etxearen zutabe nagusia, eta joan zenetik bere falta ederki nabaritzen ari gara”.

Jaiei hasiera emateko proposamena ezustean eta pozarren jaso zutela aitortu dute elizondotarrak. Ostiral honetan abiatuko diren jaietako protagonista nagusietakoak izango dira. Hunkitzeko modukoa izango



Elizondotarrak Goikoplazan, Elizondo tabernaren kanpoaldean.

da, belaualdiz belaualdi besteen zerbitzura lanean aritu baitira eta oraingoan, aldiz, udaletxeko balkoitik ahotso eskainiko diete.

Bost egunetan zehar hitzordu ugari izango da, haur eta helduentzat, festazale nahiz kirolzaleentzat. Protagonista nagusiak parte hartzen duten herriarrak izango dira, taula gainera edota kalejiran parte hartuko duten beste batzuekin batera.

“Bost urteren ondoren, badugu zer kontatu eta horiek

kontatzera itzuli gara”, Kauta taldeko kideen adierazpena da. Aspaldiko partez herriko jaietan disko berria aurkezteko aukera izango dute, eta horregatik bakarrik emanaldi berezia izango da eurentzat.

Berezia, berritzailea izango da batukada feministaren estreinaldia. Entsegu gutxiarekin batukadaren instrumentuak hartu eta kalejiran ibiliko da emakume taldea. Gogotsu aritu dira prestaketa lanetan. Orain ikusleen artean musika eginez gozatzeko tarte iritsi da.

Bost egunetan zehar hitzordu ugari izango dira, haur eta helduentzat, festazale nahiz kirolzaleentzat

Aiurriko gehigarri berezian historikoki garrantzia izan duen pertsonaia hizpide izango da: Mikeletea. Haur danborradan urtero bi mikelete agertzen dira. Gaur egun zeinek ditu gogoan? Bada, mikeletea Gipuzkoako Aldundiak eta Bizkaiko Batzar Nagusien agindupeko milizianoa zen. 1839an eratu zuten, eta nagusiki Lehen Gerrate Karlistako soldadu ohiak izan ziren lehen mikeleteak. Andoainen helduenek gogoan dute haietako bat, herrian oso ezaguna izan zena: Juan Jose Etxeberria Berra mikeletea.

Ekainaren 24an San Juan egunez emango diete amaiera jaiei. Eta azken urteetan egin bezala, su ikuskizun ikusgarri eta zaratatsuarekin izango da. “Cavaldeath” deituriko pirotekniazko kalejira Juanita Alkain plazatik abiatu eta Goikoplazan amaituko da. Andoaindarraren artean ikusmin handia sortu zuen aurreko urteetan, parte hartze handia eraginez.

[GEHIGARRI BEREZIA]



Antzerkia eta festa

Antzerki tailerrak ikasturte amaierako saioa ospakizun bilakatu zuen, ikusleen parte hartzea sustatuz. Saioa DJ musikarekin amaitu zen.

[KULTURA, 8. ORRIALDEA]

Areto futbola



Aurreko asteburuan Keler eta Pinturas Aure Bar Maiton taldeen artean jokatu zen final nagusia. Keler taldea izan zen irabazlea.

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]

Zortzi euskal baserri

Baserria gertutik ezagutu nahi duen edonorentzat (familiak, taldeak, helduak nahiz haurrak,...) ekimena antolatu du ENBA sindikatuek uztailearen 3rako.

[URNIETA, 6. ORRIALDEA]

Argazki-rallyko onenak

Sari-banaketa ekitaldia.

[URNIETA, 4-5. ORRIALDEAK]

Rock jaialdia, ikusgarria eta jendetsua



Andoaingo Nafarroa plaza gutxitan bezala jendez gainezka egon zen aurreko larunbatean, rock jaialdiaren VII. edizioan.

Nazioarteko rock taldeek, tazokoe eta gaur gaurkoek, jendetza erakarri zuten Andoainera. Gipuzkoatik eta kanpotik askotxo ziren eta, bestetik, geroz eta gehiago dira rockzale bilakatzen ari diren andoaindarrak.

Adinean gora doazen The Woggles taldekoak (argazkian) gauko izarrak izan ziren. Kementsu aritu ziren eta jendarrean kantari aritu ziren. Ia-ia bigarren maila batean utzi zuten The Bellrays taldea, jaialdiko talderik ezagunena.

Iaz bezala, Nafarroa plazatik gertu, Garagardo Azokaren bigarren edizioa burutu zen Arrate pilotalekuaren kanpoaldean. Larunbat eta igande gauean ehunka garagardozaletan erakarri zituzten.

[ANDOAIN, 9. ORRIALDEA]

Euken Villasanteri eta Olatz Izagirrerri absolutzioa



Madrilgo Auzitegi Nazionalak absolutzioa eman die 26/11 auzian epaitutako berrogei euskal herritarrei. Horien artean aurki daitezke Olatz Izagirre urnietarra eta Euken Villasante andoaindarrak. Epaileak orain akusazio guztietatik libre, absolutbitu egin ditu.

POSTONTZIA: EUKENEN AMAREN ESKER ONA

“Euken Villasante, nire semea, eta 26/11 auzian auzipetuak izan ziren gazteak aske geratu dira.

Lerro hauen bitartez eskerak eman nahiko nizkieke:

Ekonomikoki eta moralki lagundu diguzuenoi.

Eragozpenik gabe, bisitabidaia egiteko prest egon zareten lagunei; eguraldirik

okerrenarekin, gauez, edozein egunetan 400 kilometroko bidea egin, 45 minutuko bisita egin eta itzuli zaretenoi. Eskerrik asko.

Nola ez zuri, Garazi, bere oinarria izan zarelako. Egoera latz honi aurre egiteko sostengurik handiena izan zarelako. Eskerrik asko.

Eta azkenik zuri, Euken. Denbora tarte honetan asko irakatsi didazulako. Negarra besterik erakusten ez nizunean, irribarrea marrazten zidan ezpainetan. Guztiaren aurka egiten nuen bitartean, lasaitu egiten ninduzun. Zaren bezalakoa zarelako, ez zaitez sekula aldatu.

Guztioi, eskerrik asko bihotzez”.

Josune Sarasibar
Euken Villasante Sarasibarren ama

Hogei urteko kartzela zigorra Ainhoa Ozaetari

2008az geroztik Frantziako espetxeetan preso dago andoaindarrak. Aurreko asteetan epaiketa egin diote eta Frantziako justiziak 20 urteko kartzela zigorra jarri dio, “ETAko buruzagi eta estor-

tio eta finantza arloetako arduradun jota”.

Hedabideetan agertu denez, epaiketaz zehar, akusatu guztiak ETAK jarduera armatua uzteko erabakiaren alde agertu ziren.

Eragile sozialen martxa



Aurreko larunbat eguerdian herriko gazte eta gizarte eragile ezberdinek Kutxak herrian dituen hiru bulegoak zeharkatu zituzten, Aita Larramendi

kalean hasi eta Kale Nagusiraino, aste hauetan EAEko kutxak pribatizatuko dituztela salatzen. Martxa zaratasua Gokoplazan amaitu zen.

Foru eta Udal hauteskundeak Gipuzkoan, 2015eko maiatzean

Izagirre EAJko alkategaia

Mari Jose Izagirre izango da Andoaingo EAJ-PNVren alkategaia, 2015eko Udal hauteskundeetan. Gipuzkoako EAJ-PNV alderdiak larunbatean Kursaalaren “Prest” ekimena aurkeztu zuen, Batzar Nagusietako eta Udal hauteskunde-egiteko begira hautagaiak aurkeztuz. **Markel Olano** izango da Batzar Nagusietarako hautagaia eta **Eneko Goia**, berriz, Donostiako alkatezarako hautagaia. Gipuzkoako 18 udalerrietako hautagaiak ere aurkeztu zituzten, tartean Andoaingoa.

Mari Jose Izagirre azken urteetan zinegotzi lanetan aritu da EAJ-PNV, **Andoni Baltasar** eta **Eneko Urdangarinek**in batera. Alkatetzarako hautagai nagusi



Markel Olano, Mari Jose Izagirre eta Joseba Egibar jeltzaleak.

bezala, Iñaki Egibar (2007-2011) eta Andoni Baltasarren (2011-2015) lekukoa hartuko du.

Aiurriri EAJk adierazi dienez, “Andoaingo alkatezarako hautagaia aho batez onartu zen aurreko astean”.

Aita Larramendi ikastolako eraikin berriaren irekiera

Irekiera ekitaldia

Aita Larramendi ikastola Txistoki pasealekuan duen eraikin nagusiaren alboan eraikitako hainbat gela erabiltzen hasi zen ikasturte honetan. Eraikin berri hura, bereziki, 2012ko Kilometroak jaiaren bildutakoarekin eraiki zen. Ikastolaren matrikulazio kanpaina gorantz doala eta, eraikin berria behar-beharrezkoa zuten.

Aurreko asteburuan, eraikin berriaren irekiera ekitaldi ofiziala egin zuten. Eraikin berria zortzi gelaz osaturik dago, irakasle gelaz eta komunehornituta. Ikasturte amaierako festa baliatu zuten modu horretara ikasle, irakasle eta guraso guztiei eraikinaren atea zabaltzeko.



Ekitaldian, besteak beste, Arantxa Irigoras ikastolako lehendakariak eta Aitor Iriondo zuzendariak hartu zuten parte. Itsaso Sanchez ikasleak agurra dantzatu zuen.

Ikasturte amaierako ospakizun jendetsua La Salle Berrozpen

Familia festa

La Salle Berrozpe ikastetxekeo eraikin nagusian egun osoko ospakizuna egin zuten aurreko larunbatean. Urtero bezala, Familia festak ikasturtearen amaiera iragartzen du eta ohikoa den bezala ikasle, guraso eta irakasle askok parte hartzen dute ospakizunean. Uda iristear da eta ikasle gazte horietako asko Izartxo taldearekin kanpaldian izango da uztailean zehar.



Giro ederrean igaro zen Familia eguna La Salle Berrozpeko eraikin nagusian.

ANDOINGO ANBULATORIOAN IKASTAROA AMAITU BERRI DUTE; ERRETZAILEEK URRIAN AUKERA BERRIA IZANGO DUTE

Erretzeari uzteko erronka

Andoingo anbulatorioan lan egiten duten Lourdes Garmendia eta Arantxa Mendiluze erretzeari uzteko taldeen dinamikaz arduratzen dira. 2012ko udazkenaz geroztik, tailerrak eskaintzen dituzte urte-

an bitan. Tabakoa uzteko saioak burutu ahal izateko AECC minbi-ziaren aurkako elkartearen prestakuntza jaso dute. Berriki, erretzeari uzteko aukera berririk lortu du.

Erretzeari uzteko borondatea lehen urratsa da, ezinbestekoa. Saiatzekak merezi du, eta lehen saiakeran ez bada hurrengoan iritsiko da. Andoingo anbulatorioan azken bi urteetan erretzeari uzteko dinamika indarra hartzen ari da. 2012an heldu zioten, eta lehen tailer hartan parte hartzaile guztien %20ak erretzeari utzi zion. Egun hauetan laugarren tailerrari amaiera eman diote. Kopuruan handiena izan da, lehen bilera 24 pertsona hurbildu zirelako. Denera, ordu eta erdiko bost bilera egin dituzte. Anbulatorioan pozik daude azken honetan erretzeari utzi diotenen kopururekin: 24tik, 10ek.

Besteak bidean geratu dira, oraingoz. Arantxa Mendiluzek ondotxo daki zenbait kasutan ez dela batere erraza: "Erretzeari utzi ez dionak tailerra utzi egiten du. Auto bazterketaren alde egiten duela esango nuke. Beharbada bere frustrazioa ez adierazteagatik. Nire ustean taldearentzat aberasgarria da lortu duten eta lortu ez dutenen arteko esperientziak partekatzea. Esperientzia bakoitza ezberdina da, bakarra. Tabakoa uzteko garaian, bakoitzak bere bidea darama. Batzuk astebetetz utzi eta erretzeari berrekiten diote. Prozesu guztiak ez dira zertan berdinak izan behar. Adikzio bat da, eta inguru sozialak zerikusi handia dauka. Oso zaila da". Saiakerak badu bere meritua, esperientzia hartzen doazelako.

Hilabeteko ikastaroa egin eta erretzeari utzi eta gero, hi-



Ikastaroa burutu eta diploma bana jaso zuen Andoingo taldea. Argazkian: Maria Rocio Arroyo, Agustin Usarralde, Maria Dolores Laskurain, Xabier Borges, Garbiñe Garmendia, Iker Arnaiz, Leyla Ingrid Guzman, Manuel Garcia, Jokin Pavo eta Deolinda Da Silva.

ru hilabetero telefono bidezko jarraipena egingo zaie. Gainerakoei, berriro saiatzeko, ez etsitzeko dei egiten die, "erretzeari uztea prozesu bat da. Batek oporraldian kale egin badu, beti ere aukera izango du berriro saiatzeko. Hemen ikasitakoa baliagarria da, ohikoa da hiruzpalau saiakera egitea behin betiko erretzeari uzteko", azaldu du Arantzak.

TAILERRAK

Taldeko dinamikak sortzen dituzte tailerretan, guztien iritziak kontuan hartuz. Irakurgaiak landu dituzte, denentzako aztertu eta ondorioak ateratzeko. Teoria modura zigarroak zein kalte eragiten duen



Arantxa Mendiluze tabakoa uzteko ikastaroen arduraduna da anbulatorioan.

azaltzen dute, eta baita erretzeari uzteak ordu gutxira, astetara eta hilabeteetara dakartzan hobekuntzak aipatu ere,

"erretzeari utzi eta hamar urtera erretzeari uzteko aukera berririk lortu du."

"Erretzeari uztea prozesu bat da. Batek oporraldian kale egin badu, beti ere aukera izango du berriro saiatzeko. Ohikoa da hiruzpalau saiakera egitea behin betiko erretzeari uzteko"

Mendiluze jakitun da ikastaroa oinarrizkoa dela, "gurea oso oinarrizko ikastaroa da, mediku batek eta erizain batek gidatuta. Gu ez gara psikologoak. Erretzeak badu konduktismoarekin zerikusia, eta erretzearen inguruan dauden arazoak aztertzen ari izaten gara. Taldeka egiten diren hausnarketa horietan, denek ere jokabide beretsua izaten dutela konturatzen dira. Taldearen indarra hor agertzen da, gauza beretsuak sentitzen dituztelako. Aspertuta edota atsekabetuta daudenean erretzeko aitzakia bilatzen dute. Gehiengoak, ordea, egoera horretan ez du erretzen. Zergatiaz hausnarketa egiten dugu". Osasun publikoak dependetzia gainditzeko zerbitzua eskura uzten dio herritarrari, hortik aurrera norberaren erabakia garrantzia handikoa da.

Talde lanaz gain, ikastaroan arnasketa eta erlajazio ariketak egiten ikasten dute. Egunero egin daitezkeenak dira, auto-kontrola garatzeko baliagarriak.

IKASTARO BERRIA URRIAN

Andoingo anbulatorioan izena eman beharra dago. Interesatuaren motibazioa zenbaterainokoa den neurtzeko, izena eman dutenei ordu erdikoa elkarrizketa egiten diete.

(B) Diru (B)eltza, gizarte-zerbitzu (B)eltzak

"A" gizartea lortzeko eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

ZATOK EKONOMIA GARDENERA

www.ekonomiagardena.net

Gipuzkoa
BERRIA

SARI-BANAKETA EKITALDIA LEKAION

Urnietako Argazki rally-ko onenak

Argazki rally-aren XXI. edizioko sari-banaketa ekitaldia izan zen ostiralean. Parte hartu zutenen argazki guztiak erakutsi zituzten ikus-entzunezko baten bidez, eta ondoren, sariak banatu zizkien

David Rosco zinegotziak. Lehenik eta behin, hamalau urte azpikoei; ondoren, Urnietako bildumarik onenari; gero, argazki onenari eta azkenik, rally-ko bildumarik onenari.



Argazki-bildumarik onena eta argazkirik onena, lehen saria: Xabier Arnaiz Etxeberria (Hernani).



Argazki-bildumarik onena, lehen saria: Xabier Arnaiz Etxeberria (Hernani).



Argazki-bildumarik onena, lehen saria: Xabier Arnaiz Etxeberria (Hernani).

SARI-BANAKETA EKITALDIA LEKAION



14 urtez azpiko saridunak, David Roscorekin: Nerea Rainha, Telmo Gaiztarro eta Urtzi Lusarreta.

Argazki-rally digitalaren edizio berria maiztazaren 12an antolatu zuten. Hilabetera epaimahaiak erabakia hartu du:

- 14 urtetik beherakoak:
 1. saria: Telmo Gaiztarro.
 2. saria: Urtzi Lusarreta.
 3. saria: Nerea Rainha.

Helduen maila, argazki onenaren saria:
 1. saria: Xabier Arnaiz.
 2. saria: Irene Sarria.



Helduen mailako irabazleak. Xabier Arnaiz hernaniarrak argazki eta bildumarik onenaren sariak jaso zituen.

Argazki bildumak, Urnietako onenak:
 1. saria: Aitor Regillaga.
 2. saria: Tania Navarro.

Argazki bildumak, onenak:
 1. saria: Xabier Arnaiz.
 2. saria: Isidro Rodriguez.



Argazki onena, lehen saria. 14 urtez azpikoen maila. Telmo Gaiztarro Landa (Donostia).



Argazki onena, bigarren saria. 14 urtez azpikoen maila. Urtzi Lusarreta Garrido (Urniet).



Urnietako argazki-bildumarik onena, lehen saria. Aitor Regillaga Otaño.



Urnietako argazki-bildumarik onena, bigarren saria. Tania Navarro.

Bertan Udal zerbitzua erreferentzia da Gipuzkoan



Zarautz herriko ordezkaria Maribel Vaquero alkate-ordearekin batera.

Aurreko astean Zarautzko ordezkaria politiko zein tekniko zabala Urnietako Bertan arreta bulegoan izan zen bisitan.

Zarautzen ere arreta zerbitzu integrala martxan jartzekotan dira eta horretarako Urnietako Udalaren esperientzia gertutik ezagutu nahi izan zuten. Urnieta he-

rritarrei zuzendutako zerbitzua martxan jartzen aitzindaria da, 2013ko urtarrilaren 7an arreta zerbitzu integrala martxan jarri zuenetik. Aurretik beste hainbat udalerririk ere bisitan etorri dira Bertan herritarren arreta bulegora, hala nola, Andoain, Mendaro, Zierbena eta Getaria herrietako ordezkariak.

Denda Berri, kultur astea

Astean zehar tailerrak eta hitzaldiak burutu eta gero, ekainaren 23ra bitarte hi-

tzorduz beteriko egunak izango dira Denda Berriko entzat. Egitaraua, Agendan.

Ikasturte amaierako jaialdia



Gurasoek bazkari ederra antolatu zuten haur eta helduentzat.

Aurreko larunbatean Presentacion de Maria ikastetxeko irakasle, ikasle eta gurasoek ikasturte bukaerako jaialdia ospatu zuten. Goizean, ikasleen dantza erakustaldia izan

zen eta bi urteko gelakoek Haur Eskolako diploma jaso zuten. Gurasoek egindako bazkariak gozatu ondoren, haurrentzat jolas eta tailer gehiago antolatu zituzten.



Goizean dantza saioa eskaini zuten eta arratsaldean jolasak eta tailerrak.

Eula sagardotegiak sagastiak ezagutzeko aukera eskainiko du

Baserria ezagutarazteko ekimena aurkeztu du ENBAk



Euskadiko hiritar eta baserriarren arteko harremana estutzea da ekimena sustatu dutenen helburua.

Postontzia: ENBA

Zortzi euskal baserri" izenburu erakargarriarekin datorkizu, ENBA nekazal sindikatuak Uztailaren 3rako sustatu duen "Ateak zabalik" jardunaldia.

8 baserri esatean, 8 familiari gara eta hauek dira Gipuzkoako hiritargoari euren ustialekutako ateak zabalitzen dizkietenak, euskal gizarteak egungo nekazaritzaren egoera hobeto ezagutu dezan.

Ateak zabalik jardunaldia "Ongi etorri baserrira!" izeneko programa zabalago batean txertatzen da, hain zuzen ere, bi helburu garbi dituena: lehen lehenik, Euskadiko hiritar eta baserriarren arteko harremana estutzea eta bigarrenik, baserriarren ogibidea goratzea, kalitatezko produktuak sortzeaz gain, ingurumena eta paisaia zaintzen duten neurrian.

Baserria gertutik ezagutu nahi duen edonork (familiak, taldeak, helduak nahiz haurrak,...) aurrez izena eman behar du eta nahi izanez gero, ezagutu nahi duen baserria zehaztu eta bestela, antolatzaile-

ak iradokiko dio zein baserriara zuzendu. Bisita bakoitzean, produktu dastaketa edota beste ekintza osagarriren bat izango da. Izena eman duten baserri bakoitzean Label saski bana zozketatuko dute.

Ekimena doakoa izango da eta goizez burutuko da, goizeko 11:00etatik eguerdiko 13:00etara. Izena eman nahi duenak telefonoz (943 650 123) edota posta elektronikoa erabilia (ongietorribaserrira@gmail.com) egin dezake. Izena emateko azken eguna ekainaren 28a izango da.

ZORTZI EUSKAL BASERRI ESNE BEHIAK – ARTOA

Lastaola baserria, Irun. Ekoizten duen esnea Kaiku kooperatibari saltzen dio. Artoa ere ereiten du.

ARRAUTZAK

Pelu zahar baserria, Oiartzun. Arrautza ekologikoak, ardiak. Nekazaturismoa ere bada.

HARAGITARAKO BEHIAK

Odria baserria, Azpeitia. Limusin arrazarekin jarduten da eta ekoizten duen okela Urkaika

kooperatibara saltzen badu ere, ganadua ere saltzen du.

BARATZEA

Alberro barazkiak ere Astigarraga. Aire libreko baratza eta negutegia ere badu. Kalitatea Fundazioko markapean saltzen du bere ekoizpena, hainbat denda eta merkatalgunetan.

ARDIAK-GAZTA

Gomiztegi baserria, Arantzazu. Idiazabal Jatorrizko Izendapeneko gazta egiten du baina, aldi berean, beste gazta mota batzuk egiten ere hasiak dira.

MAHATSA-TXAKOLINA

Gaintza txakolindegia, Getaria. Jatorrizko Izendapeneko txakolina ekoizten du.

TXERRIA

Urki baserria, Beizama. Aire libreko txerriak gizendu eta gero, Basatxerri markapean merkaturatzen ditu.

SAGARRA-SAGARDOA

Eula baserria, Urnieta. 11 hektarea sagasti propio sagardoa lantzeko. Labelaren programan sartuta daude.

Komunikazio trebetasunak hobetzea edota graduatua lortzea

Helduen heziketa

Helduen heziketa eskolak ikasteko eskaintza ireki du Urnieta, Andoain, Hernani eta Astigarragako herritarrentzat. Besteak beste, helburuen artean daukate idazten edo irakur-

tzen irakastea, komunikazio trebetasunak hobetzea, norberaren ezagupenak gaurkotzea edota Bigarren Hezkuntzako Graduatu lortzea.

Ikastaroak bi herrietan es-


kainiko dituzte, Hernanin eta Andoainen. Matrikulazioa doakoa da.

Informazioa:

- Hernani. 943 33 53 18.
- Andoain. 943 30 40 21.

HITZ-GEZIDUNAK

* Korrikalari ohi zizurkildarra

	Nafarroako udalerría	Oinarritzko edari	Adiskidea
	Nafarroako udalerría	Irrada	Espetxealdi
Estrontzioa balio du		Zilarraren ikurra	
Jarri		Argonaren ikurra	
Meatze	Modu horretan	* DEITURA	
* IZENA	Nafarroako udalerría	Anno Domini	Baldintzetan
		Erbioa	Tona, labur-labur
Ausartu			Behialako laborarien lanabesa
Sorburua			Galderetan
			Bokala
Nahastura trinko		Larrua	
Haragia		Ez eme	
		Bokal meheena	501
		Kontso-nantea	Sufrea balio du
Astindua			



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Gure esku dago, hausnarketaren harira

Europarako hauteskundeak igaro dira eta, trenan abian da. Ez doa jende askorik, handia izan baita abstentzioa. Ni bertan noa maiatzaren 25ean, dagokidan eskubidea erabiliz, nire hautua egin nuelako. Dena den, etxean geratu direnei ere nire errespetua, nor bere erabakien jabe baita.

Giza-katearen eguna oskarbi, eguzkitsua eta argitsua esnatu zen. Goizeko 08:00etan Donostiako kaleak garbi zeuden eta ibilbideak zabal eta luze ikusten ziren. Itsasoko uhinen dantza eta musika gardenak ziren eta eguzkiaren urrezko lehen printzak ere itsasoa bera dotoreagoa bilakatzen zuten. Hiria arnasa garbia zen. Autobusetara iritsi eta erraza zen elkarriketa, ez zen nabaritzen jendearen ideologia; ez zen inongo pankartarik ikusten. Pertsonak ziren, baina denak ilusio eta asmo berdinekin: "Erabakitze eskubidea" ñabar-dura eta manipulazio gabe. Katea osatu aurretik ere giro ederra, festa giroa eta inongo interferentziarik gabe.

Aurreko Aiurri garbi azaldu nituen ekimenera joateko nire arrazoiak: errebindikazio demokratikoa; zenbait alderdi politikoetatik aspaldidanik defendatutakoa eta sententziaz desberdinak bultzatutakoa. Eta egia esan, horrelako ekitaldi jendetsura abiatzen garenean itxaropenez gainezka joan ohi gara eta, nik, oraingo honetan beteak sentitu nituen. Giro sanoa, ez pankartarik ez politikorik, ez nuen ezer ikusi eta, horrek, nolabait eskaera demokratiko baten atzetik gindoazela gogorarazten zidan. Eguna, beraz, borobila izan zen, eta eskerrak, nola ez, egun hori posible egin zuten guztiei.

Banator, itzuli ginen

Itzulerako sententziaz eta sentimenduak bestelakoak izan ohi dira. Hau edozein bidaiatan gertatzen da. Giza-katerakoa ere bidaia izan zen emozioz eta itxaropenez bete. Eta, horra hor, hurrengo egunetan eman ziren titularrak, iritziak. Denetariok, noski. Ez da erraza izaten, eta horretarako komunikabideak iaioak dira, nork sentitzen, bizi duena barneratzen eta kontzientzia izaten. Eta, era berean, komunikabideek, edozein irela, diotena urruntasunetik ikusi eta behatzea. Baina, garrantzitsua deritzot besteek diotenez kutsa ez gaitzen.

Nik, aukera bat egin eta entzun nituen zenbait eztabaida, zenbait iritzi eta balorazio. Zenbaitentzat partidetza ez zen handiegia izan biztanleon kopurua kontuan harturik, beste batzuentzat errebindikazioa nazionalista izan zen eta robot antzera funtzionatzen duten zenbait alderdik ere, ohikoa denez, erabakitze-

Eguna borobila izan zen eta eskerrak, nola ez, egun hori posible egin zuten guztiei

ko eskubidea" independentziarekin, separatismoarekin bat egiten zuten. Baziren batzuk eta bakarren bat, adibidez, ostegunegiz egiten den eztabaidan ETB1n, zer den erabakitze eskubidea galde-tzen zutenak, zein den subjektua, nola, noiz etab... Benetan gure analisten intelektual mailari pobrea deritzot. Baina, eztabaida honetan bertan gehien atentzio eman zidana Ezker Anitzekoa izan zen. Ez nuen espero ezen betidanik defendatu izan du alderdi honek erabakitze eskubidea. Ba, esaten zuten ez daudela puntu asko garbi, eta aipatu ere aipatzen zituen: zein den subjektua, nola garatu etab... Eta nirekiko nioen: ezin da dena batera eta bat-batean erabaki eta, zenbait puntu ez badi-tuzu garbi ikusten, sartu barrura, hor lan egin eta ez kanpotik kritikak jaurti. Beste zenbaitek ez ninduten fitsik ere harritu, mimetismo hutsean jira-biraka baitabilizta.

Nik egin dut nire hausnarketa eta zenbait puntu jarri nahi nituzke:

1. Garbi eta argi geratu da, nahi duenarentzat, noski, erabakitze eskubidea eskaera demokratiko bat dela eta ez duela zerikusirik independentzia eta separatismoarekin. Eta uste dut, giza-kateak berak asko lagundu duela, ez agian hainbeste ekintza aurreko berri eta iritziak. Nik neronek, Aiurri ahaleginak egin ditut, baina itzulerakoan garbi ikusi nuen hasieran baino argiago zegoela orokorrean.
2. Sentsibilitate desberdinak elkartzeko baliagarri izan da, eta gaur Euskal Herrian bizi dugun egoera kontuan hartuta, balio handikoa da. ETAK utzi zion borroka armatuari. Mugimendu zibil baten beharra genuen, ba, horra hor. Eta erabakitze eskubidearen aldeko mugimendu honek herrietan isla izan behar du errebindikazio hori aurrera eraman eta jende gehiago, ahal bada, sentsibilitate desberdinekoak bereganatzen, Udalekin elkarlanean jarraitzen eskubide hori eta bizikidetzaren eta elkarrekin lantzen, sektakeriak, kultura zaharrak, eta iraganeko egoera ilunak atzera utzita. Eta honekin beste behin, aspergarri bihurtzeko arriskua izan arren, diktadura ondorengo urteetara itzuli nahi nuen. Hain garrantzitsua da oroimena!

Eta etorkizuna?

Ez naiz nor aholkuak ematen hasteko baina bai, herri arte gisa nire iritzia emateko. Nik uste, orain arte bezala elkarlanean errebindikazio honen inguruko ekimenak antolatzen jarraitu behar dela herriz herri, noski, eta inor kanpoan utzi gabe. Eragina izango du, zalantzarik ez, Parlamentuko Estatu berriaren penontzian eta izan dezala, baina sortu den mugimendu zibil honek bere independentzia zaindu behar du ahaztu gabe, eta Katalunian ez dakit hori lortu duten, eskaera hori independentismoarekin lotu gabe. Nik, neure iritzi apalean, hor-tik ikusten dut bidea.

Izanen da denbora iritziak emateko.

SUDOKU

9 x9-ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar dituzu 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3 x 3-ko laukian ere

	4				6		7	
					2	1		
	7	1		6			8	9
9				5	1			
	5		4		3		7	
			8	2				5
7	2			4		3	5	
		6	2					
4	5						9	

5 X 5

Ezker eskuin eta goitik behera, zenbaki bakoitzean hitz bera aterako zaizu

1	2	3	4	5
1				
2				
3				
4				
5				

1. Sendagarri gisa hartzen den edari.
2. Heldu da.
3. Euririk gabeko eguraldi.
4. Polizien lanabesa.
5. Gaixoak.

GOITIK BEHERA

Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharrekoak

1								
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								
9								

1. Landare loredua, apaingarri gisa erabilia.
2. Emakume izena.
3. Neurri.
4. Gauko argi, argizari, astro.
5. Joan den urtean.
6. Euritarako soingaineko arina.
7. Maindrea.
8. Zaldia, esaterako.
9. Gipuzkoako udalerrri bateko.


ERANTZUNAK

8	8	8	8	8	8	8	8	8	8	8
3	9	6	2	8	5	7	1	4		
7	2	8	1	4	9	3	5	6		
1	3	4	8	2	7	9	6	5		
6	5	2	4	9	3	8	7	1		
9	8	7	6	5	1	4	3	2		
2	7	1	3	6	4	5	8	9		
8	6	9	5	7	2	1	4	3		
5	4	3	9	1	8	6	2	7		

E	R	I	A	K
B	O	R	R	A
A	T	O	R	I
D	A	T	O	R
E	D	A	B	E

Zitortia. Itziar. Izari. Izar. Iaz. Iaz. Zira. Izara. Zamari. Zurnalar.

L	A	G	U	N	B	A				
U	R	G	A	T	I	B				
U	E	R	R	A	T	I	A	L	A	
O	T	S	P	A	R	A	Z	A	L	A
U	P	A	G	A	D	I	B	A		
H	I	O	A	T	R	E	B	A		
M	P	E	I	O	K	E	L	A		
P	E	I	O	K	E	L	A			



Poxta Zahar



Gaztetxea behar dugu

Postontzia • Poxta Zahar

"Kaixo urnietar!

Ohar honen bidez herrian gertatzen ari den erralitate baten berri eman nahi dizugu. Izan ere, herriko gazte talde bat biltzen eta antolatzen hasi gara, gabezi edo behar batek bulztatuta.

Argia da azken urteotan sortu den herri mugimendua, eta herriak herriarentzat lan egiteko duen gogoia handitzen ari da. Norbanakoen eta elkarrekin borondatezko lanetik herriko festak indartu eta beste hainbat ekintza sortu dira.

Gaur ohar hau sinatzen dugunok indar horiek guztiak bilduko dituen leku fisiko baten beharra azaldu nahi dugu; orain artekoak biltzeaz harago, ekimen berrien sorleku izan daitekeena. Guztiok etxean bezela sentiaraziko gaituen gune bat.

Gainera, espazio hau oso garrantzitsu ikusten dugu aisialdi alternatibo bat eskaintzeko beharra asetzeko, baita jendeari taberna eta lokalitatik atera eta bestelako interesen arabera elkartzeko aukera emateko ere. Koadrilatan dauden kezkak plazaratzeko leku aproposa izango da, eta aldi berean, adin desberdinen arteko hartu-emanen ziurtatuko du, herri-tarron harremanak sendotuz.

Guk badugu guztion etxea izango den horretan egin nahi dugun ekintzen zerrenda; besteak beste: truke-azokak, baratze ekologiko bat, grafiti eta sukaldaritza tailerrak, kontzertuak, hitzaldiak... Halaber, herriko taldeen entsegu-gunea edo elkarte baten egoitza ere izan daiteke. Hauek dira orain arte atera diren ideiak, zuk ere izango duzu zurea, ezta?

Mugimendu hau saretzen hasteko, ezinbestekoa da zure parte hartzea! Anima zaitetz, beraz, ostiraletan egiten dugun asanblada irekietara eta bota zure ideia! Guztion indarrez lortuko dugul!"

KAFE ANTZERKIA SAROBEN

Antzezlana, ospakizun

Ikusleak eroso egoteko moduko azpiegitura egokitu zuen Sarobeko lan taldeak, kafe antzerki bati dagokion giro goxoa lortze aldera. Ikasturte amaierako erakus-

taldia eskaini zuen herriko antzerki tailerrak. Kafe antzerkiaren giro hori baliatuta, inoiz baino gehiago, antzezleek ikuslegoarekin bat egin zutela esan daiteke.

Kafe antzerkia Urnietan, Irunen, Tolosan edota Errenterian bizirik egon zen, hogei urte atzera.

Antzerkiaren adar hura bogan zegoen eta hamaika ziklo eta jaialdi antolatu zen. Aspaldiko giro horren baitan, Urnietako antzerki tailerrak gaubela antolatu zuela esan daiteke. Antzerkigintza probokatzailerak, parte hartzaileak eskaini zuten. Ikuslea bilatuz eta elkar eraginez aritu ziren hainbat bider. Ostiral iluntzean gertuko eta lagunen aurrean entsegu orokor modukoa egin zuten, eta igandean jendaurreko saioa. Igandekora 90 lagun hurbildu zen, antolatzailerak mimo handiz egokitutako mahaitxoetan bildurik. Eskarmentu handiko antzezleak igo ziren taula gainera, ikasturtean zehar Mikel Agirregomezkorta zuzendariaren esanetara landutakoa erakutsi asmoz. Hauexek izan ziren antzezleak: Gentzane Belausategioitia, Koro Berasategi, Pili



Kafe antzerkia zentzurik zabalenean izan zen, jateko eta edateko aukerarekin.

Brandariz, Guillermo Guridi, Juan-kar Erasun, Aritz Gonzalez, Conchi Gonzalez, Lupe Herrero, Julio

Nogales, Xabier Odriozola, Isidro Salinas, Gentzane Unanue eta Haritz Zubillaga. Ikusleak sartu

ahala, kafe antzokiko girora egokitu ziren DJ Katxorro Mikel Francoren musikari esker.



Gentzane Unanue taula gainean.



Isidro Salinas eta Haritz Zubillaga ikusleengana gerturatzen.

Ekainaren 8ko giza-katea gogoan: Bideoak, argazkiak, gehigarria...



gehigarri berezia



argazki-bildumak



bideo sorta



Aurreko igandeko giza katea ez dute berehalakoan abaztuko



ROCK JAIALDIA ETA GARAGARDO AZOKA SAN JUAN JAIEN ATARIAN

Rockzaleen gau miresgarria

Rock musika maite dutenentzat aukera ezin hobea da Andoain herriak urtero San Juan jaien atarian antolatzen duen jaialdia. Nazioarteko taldeak, ia guztiak kitarak zorrozuta dakartzatenak, eta gaine-

ra dohainik. Urteen poderioz Nafarroako plaza zabala kanpotik etorritako bisitariekin eta bertako musikazaleekin betetzen da. Donostialdean eta Gipuzkoan indarra hartzen ari den jaialdia da.

Zazpigarren edizioan auzo guztietako herritarrak aurki zitezkeen ikusleen artean, Gipuzkoatik eta kanpotik etorritakoen artean nahastuta. Nafarroa plaza jendez lepo bete zen, eta hori jaialdia irauarazteko argudio boteretsua da.

“Andoaingo rock jaialdia *must* bat da”. Merezi duena, alegia. Horixe esan nahi du Jon Pagola kazetariak *must* ingelesezko adiera horrekin. Jaialdia igaro eta ordu gutxira Kulturaldia.com webgunean loreak besterik ez zizkion eskaini Andoaingo jaialdiari: “Donostian zehar mugitzera ohituta, eta neurri apalagoan Irunen, bere puntua badu urtean behin rock irteera egitea Andoainera. Bitxia izan daiteke herri txiki batean nazioarteko jaialdia antolatzea, baina zazpi edizio igaro ondoren inork ez du zalantzarik egiten: bete-betea asmatu dute. Inguruko tabernetan bat egiten dute jaialdiarekin eta gainera rock musika ona eskaintzen dute jaialdian zehar eta ondoren”. Artikulu horretan aipatzen zenez aurtengoan ikusleen artean Donostia, Bilbo, Leon edota Madriletik etorriko ikusleak aurki zitezkeen.

Betiko rock and rolla gogoko duenarentzat, Andoain ezinbesteko geldialdia dela ondorioztatzen zuen kazetariak.

Argazkiak Flickr gunean



The Bellrays taldea gaueko izar nagusiak. Kaliforniarrok ikusteko ikusmina handia zen, eta ez zuten hutsik egin.



The Lookers Iparraldeko gazteek kemena eta gaztetasuna erakutsi zuten. Jaialdian lehen orduetan hurbildu zirenak zur eta lur utzi zituzten.



The Woggles adinean gora joanagatik, bizi-bizi aritu zen. Txalo zaparrada jaso zuten ikusleen aldetik.

Garagardo Azoka indartuz doa

Larunbat eta igande arratsalde-gau partean, bereziki, herrikide ugari bertaratu zen Garagardo Azokaren bigarren edizioa. Antolatzaileek iazko ikasgaia ondo baino hobeto baliatu zuten antolakuntzan hobetzeko eta salneurriak garai zail hauetara egokitzeko. Bereziki, azken bi egunetan, herrikideek harrera beroa eskaini zioten azokari. Arrate pilotalekuko pala eta zesta partidarara ikusle gehiago erakarri zituzten, azoka tarteko. Anto-



latzaileen helburuetakoa hori ere bazelako, andoaindarrak pilotalekura erakartzea. Azoka

bolondres askoren lanari esker aurrera atera da. 2015ean hirugarren edizioa izango da.



Larunbat arratsalde-iluntzean herritar ugari hurbildu zen Garagardo Azokara.



Jokin Lizeaga atsedean hartu beharrean

Urnietako txapelaldun handiak agur esan dio denboraldiari. Jakina denez, Zegama-Aizkorri lasterketaren bezperan hernia inginala izan zuen eta nahiz eta urgentzietan atsedean hartzea aholkatu, urnietarrak mendi maratoian parte hartzea erabaki zuen lasterketa bikaina eginez. Poz handia hartu zuen ezarritako marka berriarekin, eta munduko onenen pare ibiltzeagatik. Egunak pasa ahala, bere osasunari lehentasuna eman eta bere kirol jardueraren oparoen etena egitea erabaki du. Aste honetan ebakuntza egin diote hernia hori osatzeko. Ternua bere babesle den webgunean adierazi duenez, "ebakuntza eta gero 15-30 egunetan pisurik ez hartzea aholkatu didate. Ez pisurik, ezta esfortzurik ere. Erabateko atsedendaldia egitea eskatu didate. Korrika aritzeari dagokionez, bi hilabetez zain egoteko esan didate. Osatze epea murriztea espero dut. Mendian gora ibili eta apur bat korrika ibiltzea nahiko nuke, uda amaieran berriro igoera handiak egiten hasteko".

Argi du, beraz, agur esan behar diola denboraldiari, goi mailakoari behintzat bai: "Bizpahiru lasterketa egingo nituzte iraila-urria aldean, besterik ez bada proba egin eta gozatzeko, denborak eta markak alde batera utzita". Zorte on, Jokin!

Andoaingo futbol taldeen argazkiak Javier Zatarainen begietatik

Argazkiz hornitutako liburua argitaratu du Javier Zatarainek. 80ko hamarkadako Andoaingo futbol talde mordoak agertzen da bertan. Jauregi harategian dago salgai, eta oso harrera ona izan du.

Zer dela eta liburu honen argitaratzea?

Javier Zatarain: 80-90eko hamarkadetan Andoainekin lotura zuten milaka argazki atera nituen eta denak dauzkat gordeta; bost edo sei mila izango dira, era guztietakoak. Kontua da, bolada hartan, argazkilari bezala jardun nuela **Pepe Narcae**, El Diario Vasco egunkari-ko herriko kronikalariarentzat. Nire aurretik **Moises** aritu zen kolaborazio hori egiten, eta neuk 15 bat urtez jardun ostean, **Jose Ignacio Unanue**k hartu zuen lekukoa.

Andoainen antolatzen zen edozein ekitalditan, izan jai girokoa, izan kirolekoa..., argazkiak ateratzen nituen. Gero egunkarian oso gutxi argitaratzen ziren, baina nik denak gorde egiten nituen. Egun, digitalizatuta dauzkat denak.

Argazki bilduma horren jabe naizela jakinda, inguruak hura eta bestea eskatzen hasi zitzaizkidan eta halako batean, nire artean pentsatu nuen: eta zergatik ez argitaratu gaika zenbait argazki? Horrelaxe sortu zen liburu hau argitaratzeko ideia. Lehenbizikoa da, ondoren gehiago etorriko dira.

Jarraipena izango du lehen liburua honek, beraz...

J.Z.: Bai. Bilduma osatzeko asmoa daukat, *Los últimos vestigios del siglo XX* izenburupean. Gaika plazaratuko dira liburua. Hurrengoek honako gaiak jorratuko dituzte, besteak beste: Sanjuanak, Santakruzak, Andoaingo paisajeak eta bazterrak, Euskalduna futbol taldeko behe mailako hamakakoak...

Deskribatuko al zeniguke liburu honen edukia?

J.Z.: 227 argazki biltzen ditu, eta horietan 1983-1992 epean Andoaingo futbol txapelketa ezberdinetan (Hogar Extreme-



Andoaingo pertsona ugari ikusi ahal izango dira argazki liburuan. Irudian, argitaratu dituen beste zenbait libururekin.

"Andoaingo argazkiekin bilduma osatzeko asmoa daukat, "Los últimos vestigios del siglo XX" izenburupean argitaratuko dudana"

ño, La Salle, Ondarreta eta Arrateko 24 orduak) jokatu zuten taldeak agertzen dira. Andoaingo koadrilak dira gehienak, baina baita Lasarte, Villabona edo Tolosakoak ere.

Autofinantzatu egin duzu liburua...

J.Z.: Diru irabazi asmorik gabe argitaratu dut. Izatekotan ere, diru galerak eragingo dizkit. Erosleak Jauregi harategian (Kale Berria) utzi behar du ize-na eta telefonoa. Eskaera kopuru bat jaso ahala inprimategira joaten naiz liburu aleak egitera. Hortik aurrera, neroni arduratzen naiz banaketaz. 16 eurotan jarri da salgai, inprimategiko gastuak kitzeko lain.

Orain hiru aste kaleratu zenuen liburua, eta arrakasta itzela eduki du hasieratik...

J.Z.: Argazkia irudia da, eta erraz sartzen zaigu begietatik. Gainera, argazkia orain 20-30 urtekoa bada eta bertan geu edo inguruko jendea agertzen bada, esango didazu... Politik

eta ikusgarriak dira gehienak, eta ziur nago liburu honek, eta segidan etorriko direnek ere, andoaindar askoren interesa piztuko dutela.

Esate baterako, San Juan jaiei buruzkoa prestatzen ari naiz, eta azalerako jada aukeratuta daukat argazkia, harrigarria benetan: sokamuturrako bigantxa bat Elizondo tabernatik nola ir-teten den ikus daiteke.

Aspalditik Euskalduna futbol taldearekin lotuta zaude, eta hor betetzen duzu batez ere argazkigintzarako grina...

J.Z.: Aurtengo denboraldian 25 urte egingo ditut Euskaldunako zuzendaritza batzordekide gisa!

Beste arduren artean, web orria kudeatzea egokitzen zait; bertan sartzen ditut astero egiten ditudan argazkiak. Datu mordoak ere sartzeko ohitura daukat; izan ere, argazkigintzarekin batera estatistika nire bigarren pasioa baita. Harrokeriarik gabe esan daiteke munduan zaila izango dela Euskaldunak adina argazki eta datu pilatuta dauzkan futbol taldea topatzea.

Hipodromoko zaldi karrerari loturiko estatistikak kentzen dizute denbora azken aldian...

J.Z.: Jockeyak edo zaldi pres-tatzaileak diren zenbait per-

"Harrokeriarik gabe esan daiteke munduan zaila izango dela Euskaldunak adina argazki eta datu pilatuta dauzkan futbol taldea topatzea"

tsonen inguruko liburuak (Sandra Bermejo, Gloria Madero, Ana Imaz, Micaela Augelli...) kaleratu izan ditut; argazkiak eta estatistikez josita datoz guztiak. Egia esanda, estatistikak biltzea da nire grinarik handiena, argazkigintzaren gainetik!

Horiez gain, Lasarte-Oriako danborradari eskainitako liburua ere argitaratua daukat. Lasarte-Orian bizi naiz azken urteetan eta herri horrek eta bere gizarte bizitzak izugarri erakartzen nau.

Nondik ateratzen duzu denbora?

J.Z.: Jubilatu aurreko egoeran nago, eta nire zaletasunetarako inoiz baino denbora gehiago daukat. Goizeko 05:00etan jaiki naiteke, ordenagailuaren aurrean jartzeko. Gozatu ederrak hartzen ditut!

Emazteak Nikon d800 argazki kamera oparitu dit orain aurretik, eta txoratzen nago! Zein ederki ateratzen dituen zaldien lasterketak eta futboleko jokariak lasterka!



Iturzaeta memoriala, finala ostiralean

Ekainak 20, ostirala.

22:00 Arrate Frontoian:

- Iturzaeta memoriala, finala: Arozena-Zabala / Iradi-Garate.
- Profesional mailako partidak: Gaubeka-Ibargarai. Fausto-Aierbe.

Emaitza politak bizikleta gainean

Jubenil mailan Gipuzkoako erlojuaren aurkako txapelketa jokatu zen Aizarnazabalen, ekainaren 11n. 14,5 kilometrotan zehar ibilbidea oso gorabeheratsua zen, baina hala eta guztiz ere Andoaingo txirrindulari eskolako bi kide Top 10ean sartu ziren.

Mikel Alonsok txirrindulari taldeari aitortu bezala, "ezin izan genuen mailota etxera eramanez Julenek, ezta nik ere, baina Julenek oso saio borobila egitea lortu zuen eta hirugarren postua eskuratu zuen". Alonso hamargarren sailkatu zen.


Sailkapena:

1. Oier Ibarguren (Atr.Sanz)
2. Aratz Olaizola (Zarautzarra)
3. Julen Irigoien (Andoaingo)
10. Mikel Alonso (Andoaingo)

JOKIN ALBERDI

Zazpigarren sailkatu da Euskadiko selekzioarekin. Espainiako txapelketa, Euskadirekin parte hartzeko hautatu dute.

ANDER AMONARRIZ



Bigarren sailkatu zen kadete mailako lasterketan, Bergaran. Zorionak!

Sailkapena:

1. Iker Imaz (Inoxcra)
2. Ander Amonarriz (Andoaingo)
3. Xabier Murgiondo (Ulma)
57. Ioritz Maioz (Andoaingo)

Areto futboleko final bizia Allurralde kiroldegian



Keler eta Pinturas Aure Bar Maiton taldeak elkarrekin, finala jokatu ostean.

Urtzi Azpiroz gol gehien sartu dituen jokalaria izan da eta Ander Lorente, berriz, txapelketako atezain onena. Biak aspaldiko ezagun dira, baina finalean aurkari izan ziren. Finala amaituta, hauxe biei batera egindako elkarriketa.

Urtzi, zu zara txapelketan gol gehien sartu dituen jokalaria. Zenbat sartu dituzu?

Urtzi Azpiroz: 61-62 gol inguru sartu ditut denboraldi honetan. Hogeita bost partidur inguru jokatu ditugu, beraz, batezbeste hiru gol partidako.

Gaurko finala gogorra izan da, ezta?

U.A.: Oso gogorra izan da, guk, agian, esperientzia gehiago genuen baina beraiek korrika asko egiten zuten. Alderdi txikiak markatzen dute beti final bat eta gaur gure alde atera da. Beraien aldera atera zitekeen, baina gaur zorte ona izan dugu eta gurea izan da garai-pena.

Zuentzako pena, Ander.

Ander Lorente: Guretzat polita izan da. Partida zaila da, baina berriro jokatzeko gogoz geratu naiz.

Hemengo partidak tentsio handikoak izaten dira.

U.A.: Bai, tentsio handiko partidak izaten dira eta, gainera, denak ezagunak gara. Badaki-

Andoaingo areto futbol txapelketa

Ligako txapelduna: Keler.
Goleatzailea: Urtzi Azpiroz (Keler).

B Taldea

Txapelduna: Ekaitz.
2.: Hogar Extremeño Andoain.
3. Sailkatua: Medallo 21.
4. Sailkatua: Leiza 77.

Finaleko atezaina: Ander Lorente (Maiton).
Jokalaria onena: Jaka (Keler).

A Taldea

Txapelduna: Keler.
2. Sailkatua: Pinturas Aure Bar Maiton.
3. Sailkatua: Centro Extremeño.
4. Sailkatua: Galpasitx.



Urtzi Azpiroz goleatzaile nagusia eta Ander Lorente finaleko atezainik onena.

gu bakoitzak nola jokatzen duen, zer egingo duen. Normalean tentsio handia izaten dugu eta detaile txiki batek zehazten du finala.

Nola bizi duzu partida atetik?

A.L.: Atetik beste era batera ikusten dira gauzak, distantziatik. Nik, hala ere, tentsio handia bizitzen dut eta gogorra egiten da.

Zuen bizitzan zenbat aldiz jokatu duzue elkarrekin?

A.L.: Duela hamar urte Urtzik eta biok elkarrekin jokatu genuen hemen, eta orain aurkari bezala gabiltza.

Urtzi bi urte geldirik egon ostean, zer egin duzu goleatzaile izateko?

U.A.: Bi urte geldirik egon naiz. Baina ez dut entrenatu, nahi baino gutxiago. Buelta gogorra izaten den arren, partidekin ilusionatuta egon naiz eta ondo jokatu dut.

Argazkiak, bideoa: aiurri.com



Andoaingo kirolariak triatloian bikain

Aurreko asteburuan herriko triatleta bikain aritu dira, lehen postoretan.

Ecotrimad Buitrago de Lozoya herrian ospatu zen, Madrildik gertu dagoen herri ederrean. **Javier Miguel** distantzia ertainean 10. sailkatu zen.

Donostiako triatloian, aldiz, **Ander Lakano** 3. sailkatu zen. Sprint distantzian, bide batez, Gipuzkoako txapeldun izan zen.

Andoaingo triatletak maila bikaina eskaintzen ari dira azken bi denboraldietan. Zorionak!

Urnieta txapeldunorde

Urnieta 31-40 Berrio Otxoa

Imanol Odriozola-Inhar Oiarzabal Euskal Herriko finala. Trinketea, kadeteak. Denboraldiko partida kas-karrena izan zen, eta hala ere 31 tanto egitea lortu zuten. Elorrioko bikoteak bere ohiko maila erakutsi zuten, urnietarrak ordea euren mailatik apalago ibili ziren. Kadete mailako lehen urtea izateko finalera iris-tea albiste ona da. Erregularitasuna falta izan zaie aurten, baina datorrenean txapela asko irabazteko hautagai sendoak izango dira.



Kros mistoa

Ekainak 22, igandea.

10:45. Andoain. Goikoplaza.

San Juan jaietako VIII. Bikoteen kros mistoa igande honetan. Irteera eta helmuga Goikoplazan.

Batukada feminista San Juan jaietan

BERDINTASUN PLANAREKIN BATERA HAINBAT TAILER ANTOLATZEN HASI ZEN ANDOINGO UDALA. TARTEAN, SAN JUAN JAIETAN ESTREINALDIA EGINGO DUEN BATUKADA FEMINISTA. DANBOR HOTSAK KALEZ KALE OZEN ENTZUNGO DIRA LARUNBAT HONETAN.

Andoainen batukada taldea sortu zen apirilean eta Ainara Sarrasketa eta Arantza Vicedok gidatutako entsegu batzuen ostean, San Juanetan kalera irteko gogoz daude. Taldeko batzuen esperientziak jaso ditu Aiurrik lau partaide ezberdinen artean.

Koro Ubillos

“Nik repenikea jotzen dut. Hasiera batean ez nuen instrumentu hau nahi, danborraren oso antzekoa delako, baina ez da uste bezain antzekoa eta orain oso gustura jotzen dut. Oso gustura nabil, beti nago ostirala noiz iritsiko zain entseatzera etortzeko. Hasiera batean San Juanetan soilik jo behar genuen, baina orain Tolosara joatea eta bertan jotzea eskaini digute. Pentsatzeko daukagu oraindik. Gogotsu gaude eta aurrerantzean ere jarraitu egin nahiko nuke”.

Gabone Iturrarte

“Ezagun batek esan zidan ea animatzen nintzen eta, dudarik gabe, baiezkoa esan nion. Instrumentuen aukera eskaini zigutenean, denak handiak hartzera joan ginen. Nik, ordea, azkenean plantinalak hartu nituen eta oso gustura nago. Txikiagoa da eta jolasteko aukera ematen du. Hala ere, jendaurrean jotzeko akatsa apur bat ematen dit. Lehendik dantzan eta musika joz oholza gainean ibilia naiz, baina denbora asko da jendaurrera irteten ez naizela. Ahal duguna egingo dugu. Gainera, geroz eta hobeto jotzen dugu eta ondo koordinatzen gara. Ikusten da gainontzekoen instrumentuetan ere belarria jartzen dugula”.

Elixane Jauregi

“Gaur izan da nire lehenengo entsegua. Bi lagunek kale egin dute aste honetan eta apuntatzeko gogoz nengoenez, ni sartu naiz. Entsegu batekin nahikoa izaten dela esan zidaten eta esperimentatzera etorri naiz. Hasieran galduta ibili naiz baina ez da uste bezain zaila. Bi kanta ikasi ditugu, eta *kit-kat* deitzen zaien isilune, errepikapen eta erritmo joko ho-



Aurreko ostiralean azken entsegua egin zuten Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian.



Koro Ubillos.



Gabone Iturrarte.



Elixane Jauregi.



Arantxa Urtasun.

riek. Gainera, instrumentu bera batek baino gehiagok jotzen dugunez, elkarri begira ondo egiten saiatzen gara”.

Arantxa Urtasun

“Apirila inguruan hasi ginen batukadan eta bost entsegu egin ditugu. Tanborina

jotzen dut; erraza da jotzeko, ez baitu pisurik. Geroz eta abesti konplexuagoak ikasten ditugu, baina okerrena da entsegu batetik bestera ahaztu egiten zaizkigula. Izan ere, zaila da gogoratzea noiz isildu, noiz errepikatu. Hala ere, oso ondo pasatzen dugu. Ez dut lotsarik, niretzat jotzen

dut eta ez zait axola gaizki egiten badut. Besteek ondo pasatzen badute hobeto, baina nik ederki pasatzen dut eta San Juanetarako gogoz nago. Egia da beste talde batekin agian ez nukeela joko, baina talde oso ona sortu da eta, dudarik gabe, talde honekin pozik aterako naiz”.

ELIZONDO
FERRETERIA **TABERNA**
SAN JUAN JAIE ZORIONTSUAK!

La Salle etorbidea, 1 - Andoain
 Ferreteria: 943 59 03 02 Taberna: 943 59 28 02

GORA SANJUANAK!

- Arropa alternatiboa
- Festetako zapiak, blusak...
- Dantzarako arropa
- Era guztietako bordatuak

Kale Nagusia, 45 - Andoain
 Tel.: **637 283 224**
 keinuandoain@gmail.com
 www.facebook.com/keinu.andoain

Sanjuanak Andoainen 2014, egitaraua



Ekainak 22, igandea. 12:00. Azelain ballet elkarte.



Ekainak 22, igandea. 13:00. Kontzejupeko pilota partidak.



Ekainak 23, astelehena. 20:15. Soka-dantza.

Ekainak 20, ostirala

Jaien hasiera, txupinazoa

- 18:00 Buruhandi eta erraldoien kalejira.
- 19:00 Sanjuanetako kartel lehiaketako erakusketaren irekiera Urigain etxean.
- 19:45 Basterotik Goikoplazara Udal musika eskolako bandaren kalejira.
- 20:00 Elizondotarren familiaren eskutik pregoia eta jaien hasierako txupinazoa udaletxean.
- 20:15 Olagain txistulari elkartearen eta bere ikasleen kontzertua, Andoaingo txalapartari, trikitilari, Urkiko dantzari eta beste musikari gonbidatuekin Goikoplazan.
- 22:00 Pilota partidak Arrate Frontoian:
 - Iturzaeta Memorialeko finala.
 - Profesional mailako partidak: Gaubeka-Ibargarai. Fausto-Aierbe.
- 23:00-03:30 Kauta eta Ingo al deu zuzenean Nafarroa plazan.
- 23:15-00:30 Udal Musika Eskolako Bandarekin dantzaldia Goikoplazan.

- 16:00 Pilota partidak Arrate frontoian: Zesta eta palako jubencil eta nagusien mailako finalak.
- 16:30 Goitibera lasterketa: Pagamendin hasita Bastero Kultuguneraino. Euskal Herriko ligarako eta Gipuzkoa Challenger ligarako puntuagarri.
- 17:00 Dirt Jump lehiaketa Plazaolako bizikleta gunean: afizionatuak.
- 17:30 XV. Bizikleta festa Goikoplazan. Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxeko patioan. Ondoren, apar festa Goikoplazan.
- 18:00 Dirt Jump lehiaketa Plazaolako bizikleta gunean: PRO maila. Buakaeran, bertan, sari banaketa.
- 18:30 Party txapelketa Gazte Lokalean.
- 19:00 Batukada feminista: Goikoplazan hasi eta Nafarroa plaza bitartean ibiliko dira kalez kale.
- 19:30 Koadrilen arteko afari-karaokea eta dantzaldia.
- 20:00 Triana dantza taldearen emanaldia Goikoplazan.
- 22:30 Zezen-suzkoa Goikoplazan.
- 22:45 Bakartxo eta Josebaren dantza eskolako taldearen erakustaldia Goikoplazan (Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxean).
- 23:00-03:30 Su ta gar eta Laket Nafarroa plazan.
- 23:30-00:45 Son kandela taldearekin dantzaldia Goikoplazan.

Ekainak 21, larunbata

Batukada feminista

- 09:00-15:00 Colombaire usakume tiroketa Pagamendin: San Juan saria.
- 10:00 Pilota partidak Arraten: Zesta pilotako umeen finalak.
- 11:00 Pilota partidak Arraten: Eskuzko umeen eta gazteen finalak.
- 11:30-13:00 Dirt Jump lehiaketa Plazaolako bizikleta gunean: izen-emaiteak eta entrenamenduak.
- 12:00 Kantu kalejira eta txalaparta ibiltaria kalez kale Goikoplazatik hasita. Haurrentzako txalaparta tailerra.
- 12:15 Gora Kaletxiki txaranga Basterotik hasita.
- 14:00 Bazkaria Goikoplazan: Txuleta jana. Izena emateko epea ekainaren 19an amaituko da Elizondon eta Txitibarren.
- 15:30 Goitibera erakustaldia Goikoplazan

Ekainak 22, igandea

Kontzejupeko partidak

- 10:45 San Juan jaietako VIII. Bikoteen kross mistoa. Irteera eta helmuga Goikoplazatik.
- 11:00-13:00 Xake simultaneo saioak. Eguraldi onarekin Goikoplazan. Eguraldi txarrarekin San Martin elizaren arkupetan.
- 12:00 Sanjuanetako kartel lehiaketako sari banaketa ekitaldia Urigain etxean. Lanak ikusgai izango dira bertan, hilaren 29ra bitarte.
- 12:00 Udal musika eskolako Mugaz taldea eta Azelain ballet elkartearen musika eta dantza emanaldia Goikoplazan.

Olloki
Kafetegia • Oqitaritekoak • Razioak
Plater konbinatuak • Pizzak
Tel.: 943 300 603 - Goikoplaza, 6-7 - Andoain

Bitxikeriak Arropa
Gora Sanjuanak!
Kale Nagusia, 6 - Andoain - 943 591 224

Ekainaren 20tik 24ra ospakizun betean

- 13:00** Kontzejupeko txapelketako pilota partidak.
- 16:00** XXV Gipuzkoako Txirrindularitza Itzuliaren irteera Goikoplazatik.
- 17:00** Andoaingo Funk Hip Hop eta La Salle Berrozpe ikastetxeko dantza jazz taldeen emanaldia Goikoplazan.
- 18:15** Ane eta piratekin parrandan! berbena haur eta gurasoentzat Goikoplazan.
- 19:00-20:30** Sound system gaua Nafarroa plazan.
- 20:00** Soinuak musika eskolako ikasleen eta Akorde-On taldearen kontzertua Goikoplazan, Javi Pérez tronpeta-jotzailearen laguntzarekin.
- 22:00-02:00** Sound system gaua Nafarroa plazan.

Ekainak 23, astelehena

San Juan bezpera

- 11:30-13:30** Haur parkea Goikoplazan: jokoak, puzgarriak, ludoteka, oztopozko ohea, pilotadun etxea...
- 14:00** Laurogei urteko aiton-amonon bazkaria Basteron.
- 17:00-20:00** Haur parkea Goikoplazan: jokoak, puzgarriak, ludoteka, oztopozko ohea, pilotadun etxea...
- 18:00** Haur danborrada La Salle-Berrozpe, Aita Larramendi eta Ondarreta ikastetxeetako ikasleekin.
- 19:30** Alberto Agirre abesbatzaren eta Udal musika eskolako abesbatzen kontzertua San Martin parrokian.
- 20:00** On Pedro Aizpuruaren Salbe gorrena San Martin elizan Alberto Agirre abesbatzak eta Udal musika eskolako abesbatzarekin.
- 20:15** Alkatea eta udalbatzaren Sokadantza Goikoplazan.
- 21:30** Dultzaineroen Kalejira Goikoplaza inguruan.
- 22:00** Zezen-suzkoa Goikoplazan.
- 22:00** Txistulari bandaren kalejira San Juan zortzikoa joz.
- 22:30** Suziri, txalaparta eta kanpai-errepikarekin: San Juan sua. Ondo-

ren, herritarren suaren inguruko dantza eta ohiko emanaldia, Alberto Agirre eta Udal musika eskolako abesbatzak, Udal musika eskolako banda, txistulari banda, Soinuak musika eskola eta Urki dantza taldea.

- 22:45** Agustin Leitza elkartearen danborrada.
- 23:00-02:00** Gazte Jai diskofesta Nafarroa Plazan.
- 23:30-01:00** Espaloian taldearen kontzertua Goikoplazan.

Ekainak 24, asteartea

San Juan eguna

- 09:30** Diana Andoaingo dultzaineroekin.
- 10:30-14:30** Gabiltza elkartearen artisautza feria eta Napar bideak elkartearen janari azoka Goikoplazan.
- 11:00** Meza nagusia San Martin parrokian, Alberto Agirre abesbatzak kantatua.
- 12:00** Axeri-dantza, dantza herrikoia Goikoplazan.
- 17:00-20:30** Gabiltza elkartearen artisautza feria eta Napar bideak elkartearen janari azoka Goikoplazan.
- 18:00** Herri kirolak Goikoplazan.
- 18:00-20:00** Jolasak egurrezko joko erraldoiekin Kale Heziketa Programaren eskutik Goikoplazan. Eguraldi txarrarekin San Martin elizako arkupetan.
- 19:30** Bertsolari jaialdia Goikoplazan: Amaia Agirre, Patxi Etxeberria, Sebastian Lizaso, Jon Maia, Aitor Mendiluze eta Iker Zubeldia.
- 20:00** Baby Kamioi Band Goikoplazan eta inguruan.
- 22:30** Sanjuanak amaitzeko "Cavaldeath" deituriko pirotekniazko kalejira Juanita Alkain plazatik abiatuta.

- Egitaraua: aiurri.com gunean eta sare sozialetan ikusgai.
- Argazkiak eta bideoak: Aiurrik jaieran zehar argitaratuko ditu.



Ekainak 24, asteartea. 11:00. Meza nagusia meza nagusian.



Ekainak 24, asteartea. 12:00. Axeri-dantza Goikoplazan.



Ekainak 24, asteartea. 22:30. Jaien amaiera "Cavaldeath" ikuskizunarekin.



Ondo pasa festetan!

gozotegia

arruti

Etxeko obradorea:
pastelak, pastak,
ogi bereziak..



Zumea 18, 943 593 777 – ANDOAIN
arrutigozotegia@hotmail.com

Goitibeherak

LARUNBAT HONETAN HILERRITIK BASTERORAINO ABIADURA BIZIAN JAITSIKO DIRA GOITIBEHERAK.

Iñigo Ezkerro, Jon Cencillo eta Kaletxikiko jai batzordeak goitibehera jaitsiera antolatu du aurtengo San Juan jaietarako. Larunbat honetan, hilaren 21ean, izango da erakustaldia, arratsaldeko 15:30etan hasita.



Nolatan sortu da goitibehera San Juantant antolatzeko ideia?

Jon Cencillo. Alde batetik Andoaingo jai nagusiak dira eta jende asko erakartzen duen ekintza da. Bestetik, aurrekontua handiagoa dagoenez, gauzak hobeto antolatzeko aukera ematen digu. Santakrutzak baino lehenago, Kaletxikiko festetan egiten genuen. Aurten, ordea, pittin bat aldatzeagatik eta parte hartzaile kopuru handiagoa erakartzeko asmoarekin aldatzea erabaki dugu.

Helburua zer da, lehen egiten zirenak berreskuratu eta sortzen zer giroa berriro izatea?

J.C. Bai. Mutil eta neska gazteak animatzea da helburua, beraien goitibeherak egitea eta parte hartzea.

Zein da goitibeheraren grina, zure ustez?

J.C. Bakoitzak bere goitibehera egitea, probatzea eta lehiatzea. Eta, noski, ahal izanez gero, irabaztea. Abiadura gogoko izan behar duzu.

Zuk, antolatzeaz gain, parte hartzen al duzu?

J.C. Ez, eta ez da gogo faltagatik izango. Iñigo eta biok garai batean ibili ginen lehen.

Ez al du arrisku handia?

J.C. Bere arriskuak ditu, kirol jarduera askok bezala. Agian beste batzuk baino gehiago. Askok erotzat gaituzte, baina afizioa sortzen du.

Zein izango da aurtengo ibilbidea?

J.C. Hilerriko aparkalekutik Basteroko atariraino.

Basterora jaisteko, udaletxe ondoko bihurgunea nahiko itxia da. Nola gaingitu beharko da zailtasun hori?

J.C. Lehen Kaletxikiruntz hartzen zuten

bezala, aurren beste aldera hartuko dute. Zebrabideak gehiago kezkatzen nau, salto batean ez ote diren aterako udalerearen aurka.

Txapelketaren baten baitan al dago jailetako goitibehera jaitsiera?

J.C. Euskal Herriko Ligarako eta Gipuzkoa Challengerako puntuagarria da.

Zein baldintza bete behar dira parte hartu ahal izateko?

J.C. Hasteko, beharrezkoa da goitibehera bat edukitzea eta gorputza babestuta eramatea. Gainera, federatuta egotea edo eguneko seguroa izatea. 16-18 urte bitartekoek gurasoen baimena beharko lukete.

Zenbatak eman dute izena orain arte?

J.C. Hogeita bi goitibeherak eman dute izena. Andoaindar batzuk eman dute izena, ea hurrengo urtean gehiago diren. Kanpotik jende asko etortzen da. Adin guztietakoak.

Zein mezu zabaldu nahi diezu andoaindarreri?

J.C. Parte hartzeko eta bakoitzak bere goitibehera prestatzeko. Esperientzia berri bezala ikus dezatela, giro oso polita egoten da. Uste baino errazagoa da. Interesa izanez gero, lasai galdetu dezatela, laguntzeko prest gaude eta. Bestalde, ikusle bezala ere animatu daitezela esan nahi diet, arratsaldepararako aukera ederra da. Barre batzuk egiteaz gain, goitibehera oso bereziak, landutakoak eta politik ikusiko dituztelako. Aurten, gainera, lau txanda izango dira, eta azkenekoa erakustaldi modukoa izango da, piloto bakoitzak bere abileziak erakusteko.

Omenaldia

ANDOAINO TXISTULARI ETA DANTZARIEK JESUS MARI ZALAKAIN OMENDU ZUTEN SAN JUAN JAIEN ATARIAN.



Juantxo Arregi, Jesus Mari Zalakain eta Jesus Mari Otamendi.

Jose Antonio Zalakain txistulariak omenaldi xumea jaso zuen Andoaingo txistulari eta dantzarien partetik, joan den ostiralean. Olagain txistulari bandak Andoainen txistuaren alde egindako lanagatik esker ona adierazi nahi izan zion era honetan. Zalakainek 70 urte bete zituen egunean egin zen ekitaldia, hain zuzen ere.

Zalakainek, gaztetan, Isidro Ansorena eta Joxe Mari Huizi zituen txistu irakasle. Behin txistuarekin trebezia lortuta, herriko makina bat ekitalditan hartu zuen parte, horietan alaitasuna jarriaz: mendi irteeratan, Eguberrietan, Santa Ageda eskean, luistarren kongregazioko ekitaldietan... Aita Larramendi ikastolako haurrek txistu irakasle gisa ere jardun zuen Jesus Mari Otamendi, Jose Luis Etxeberria eta Jose Mari Huzirekin batera.

Lizar Makil dantzan txistulari taldeko kidea zen, eta 1976ean Axeri

1979an Andoaingo Udal Txistularien Bandaren sortzaileetako izan zen

dantzaren berreskupan prozesuan hartu zuen parte; hantxe ibili zen, buru belarri, Adunako dantzari zaharrenen ahotik doinuak ikasten.

1979an Andoaingo Udal txistularien bandaren sortzaileetako izan zen. Banda horren partaide aktiboa izan zen urtetan, herriko hainbat jaialditan ezinbesteko bihurtuz; harik eta orain bost urte txistua uztea erabaki zuen arte. Berarekin euskal kultur giroan ibilitakoek aitortzen dutenez, pertsona apala eta zintzoa izan da beti.

Argazkian, Axeri dantza elkartearen eta Olagain txistulari bandaren eskutik jasotako oroigarri banarekin.

AGRO DENDA

Bertako Produktu Naturalak eta Ekologikoak

Ondo pasa Sanjuanetan!

KALE NAUSIA 26
20140 ANDOAIN

agrodenda@gmail.com

STOP LIBURUDENDA

Ondo pasa Sanjuanetan

Agustin Leitza, 27
943 591 603
20140 ANDOAIN
(Gipuzkoa)

Aterpe

Eguneko menua 10€

Gosariak
Razioak
Pintxoak
Bokatuk
Plater konbinatuak...

Gokoplaza, 7
943 117 986
672 725 978

Gorá Sanjuanak

Mikeletea, herrietan zegoen zaindari hura

OROIMEN HISTORIKOTIK EZKUTATZEN ARI DEN PERTSONAIA HISTORIKOA DA. TARTEKA GIZARTE TRADIZIONALA IRUDIKATU NAHI DUTEN HERRI ANTZEZPENETAN IKUSTEN DITUGU. SANJUANETAN EGITEN DEN HAUR DANBORRADAN ERE BAI.

Halako ekitaldietan, praka eta txapel gorritz eta jantzi urdinez ikusten diren pertsonai horiek nortzuk ote diren galdetzen dute askok. Mikeletea, Gipuzkoako Aldundiak eta Bizkaiko Batzar Nagusien agindupeko milizia kidea zen. 1839an eratu zuten, eta nagusiki lehen mikeleteak Lehen Gerrate Karlistako soldadu ohiak (txapelgorri karlistak eta txapelzuri liberalak) izan ziren. 1877az geroztik Miñoi izena jarri zitzaizen Bizkaikoei.

Foru izaera zuen polizia taldea zen mikeleteena, honakoak ziren bere zereginak, besteak beste: bide zaintza, zerga bilketa, herri bakearen mantenua, gaizkileen eta kontrabandoaren jazarpena...

Aparteko baldintzak jartzen ziren mikelete izateko: gutxieneko 1,66 metroko altuera edukitzea; 20-30 urtekoa izatea, ezkongabea izatea (bi urtez jarrera ona edukiz gero, baimentzen zen ezkontzea); irakurtzen eta idazten jakitea, ohorearen birtutea edukitzea; jarreraz duina eta irmoa izatea eta bortxa zuhurtasunez bakarrik erabiltzearen aldekoa izatea; jokabide zuzena erakustea (ondorioz, debekatuta zeukaten taberna eta sagardoetagetan sartzea); bizarra ondo zainduta eramatea; kartetan ez jokatea...

Historia kronikak esan izan dutenez, Gipuzkoako herritarrek errespetuz hartzen zuten mikeletearen autoritatea, gertukotzat jotzen zuten. Euskalduna zen mikeletea, eta asko errazten zuen horrek, nonbait.

Mikeleteei loturiko gertakizunak topatzen hasita, kontrabandista eta bidelapurren kontrako borrokarekin zerikusia dutenak izan litezke, beharbada, gugana iritsi diren artetik ezagunenak. Eginkizun horretarako azpiegitura gisa erabiltzen zuten etxe batek baino gehiagok zutik dirau oraindik Gipuzkoako mugatan. Hala Nola: San Adrian (Aizkorriko parke naturalean), Urto (Berastegi), Lizartza (Araxeko bailara)...

1936ko gerran, Errepublikaren alde lerratu ziren mikelete gehienak. Altxatu militarrek Gipuzkoa herrialde traidoretzat hartu zuten, eta ondorioz, 1937an, deuseztatu egin zituzten bai foruak eta



Argazkian, Juan Jose Etxeberria Berra mikelete andoaindarra ageri da.



San Juan jaietan herri danborradan bi mikelete azaltzen dira.

Etxeberria Kaletxikin bizi zen eta Andoainen jardun zuen mikelete gisa. Lege zaindari ospetsua izan zen, harik eta 1931n hil zen arte

baita polizia gorputz hori ere. Soilik mikelete bakar batzuk utzi zituzten, zergen inguruko zereginetan aritzeko.

Egun, laupabost baino ez dira gertzen, eta funtzio sinbolikoak betetzen dituzte: Foru eraikinen zaintza eta Aldundiko Ahalduen nagusi eta foru diputatuaren bizkarzaintza, hain zuzen.

MIKELETEAK ANDOAINEN

Argazkian, Juan Jose Etxeberria Berra mikelete andoaindarra ageri da. Miren Etxeberria bere bilobak utzitako erretratu da. Etxeberria Kaletxiki auzoan bizi zen eta Andoainen jardun zuen mikelete gisa. Lege zaindari ospetsua izan zen bertako herritarrentzat XX. mendeko lehen hamarkadetan, harik eta 1931n hil zen arte. Bere bilobak adierazi duenez, Alfonso XIII erregearen ama zen Maria Cristina Donostiara etortzen zenean mikelete-taldea bere zaintzan jartzen zuen Diputazioak, eta aitona beti aukeratzen omen zuten eginbehar horretarako.

Etxeberria familiak umorez kontatu izan du honako pasadizoa, Andoainen behin eta berriro errepikatu izan zena: aitonak agindua omen zeukan herrian sartzen ziren ijitoak kanpora zitzan. Andoaingo mugetan uzten omen zituen ijitoak, bai, baina bere zereginak ondo bete zituelakoan herrira itzultzen zenerako, hara non topatzen omen zituen berriro herriko kaleetan!

Juan Jose Etxeberriak lau seme izan zituen, eta horietako batek, Jose Ferminek, aitaren ofizio berbera hautatu zuen. 36ko gerran, lau senideak gudariak izan ziren Bizkaiko frontean, eta era guztieta-ko zigorrak pairatu zituzten ondorioz (kartzela, langile batailoioak eta exilioa). Jakina, Jose Ferminek mikelete lanpostua galdu egin zuen.

Andoaingo LHI Lanbide Hastapeneko Ikastetxea

15-17 urte bitarteko gazteei zuzendutako prestakuntza programa

Soldadura laguntzailea

Ibilgailuen txapa eta pintura

Matrikula ekainean zehar.

Azken eguna: uztailaren 15a

Alda ezazu zure ikuspuntua

Olagain auzoa, 7 (Opua pabilioia) - 20140 Andoain

Tel./Faxa: 943 300 816 - cip-lhi@andoain.org

San Pedro jaien hasierako txupinazoa bolondres taldearen eskutik

ASTEASUKO BOLONDRES TALDEAK ELIKAGAI BANKUA ABIARAZI ZUEN IAZ, ETA HERRIKO HELDUEN AISIALDIAREN INGURUKO PROGRAMA ERE MARTXAN DUTE. BORONDATEZKO LAN HORI ESKERTZEKO, EURAK IZANGO DIRA JAIEN HASIERAKO PROTAGONISTAK.

Hamabost herritar inguru biltzen da Asteasun bolondres lanak egiteko. Beharrean diren herritarren artean elikagai banaketa egiteko asmoz hasi ziren biltzen iazko ekainean eta martxan dabilta orduz geroztik. Egun, hogeitaz hiru hemezortzi pertsonentzako elikagaiak ekartzen dituzte hileroko Oiarzungo Elikagai Bankutik. Horrez gain, bakardadearen aurkako ekimena lantzen ari dira 65 urtetik gorako herritarrekin.

Hilabete behin, Oiarzungo Elikagai Bankura joan, eta Asteasun premian dauden familien zerrenda eskuan, beharrezko elikagaiak ekartzen dituzte. Lizardi etxean elkartzen dira bolondresak, ekarritako elikagaiak antolatu eta eskaera egin duen familia bakoitzarentzat sorta bana prestatzeko. Bi bolondresen lana izaten da familia horiei harrera egin eta dagokien sorta ematea.

Horrez gain, Eguberrietan, elikagai bilketa egin zuten Asteasun bertan. Bildutako guztia Oiarzungo zentralera bideratu zuten: "Akordioa dugu haiekin, eta ezin dugu hemen bildutakoa bertan banatu. Nolanahi ere, garbi daukagu askoz ere elikagai gehiago ekarri dugula Oiarzungo, guk hara eramanez gero, azaldu dute kideek.

HELDUEN TALDEA

Herrian sumatutako beste premia bati ere erantzun dio bolondres taldeak: "Bakarrik bizi diren adinekoen artean, bakardade arazoak antzeman genituen, eta horri irtenbidea eman nahi izan genion", azaldu dute. 65 urtetik gorako pertsonekin zerbait antolatzen hasteko gogoia piztu zen bolondresen artean. Gonbidapenak bidali zizkieten bakarrik bizi diren herritarrei eta lehen bilera egin zuten otsailean.

Herriko helduekin landu beharreko ekimena otsailean hasi eta ekainean amaitzea zen hasierako asmoa, baina luzatu egingo dute: "Oso gustura dabilta



Bolondres taldeko zenbait kide Lizardi etxean, elikagaiak antolatze lanak amaitu berritan. Ekainaren 26ko iluntzean, udaletxeko balkoian bilduko dira bolondres taldeko kideak. Haiek botako baitute aurtengoa, jaien hasierako txupinazoa. Argazkian, zutik: Mikel Maiz, Nekane Zubizarreta eta Iñaki Sorarrain. Makurtuta: Jose Luis Elizegi, Juan Mari Razkin, Idoia Zulaika eta Miren Vitoria.

eta uztailean ere bildu egingo gara. Behin uda pasata, irailean ekingo diogu berriz ere. Esan beharra dago, bestalde, Asteasuko emakume taldea ere parte hartzen ari dela ekimen honetan. Elkarlanean ari gara eta hori ere oso aberasgarria da; parte hartzea, auzolana, sentsibilizazioa, 65 urtetik gorakoen agerpena..., hori guztia lantzen ari gara guztien artean".

Dagoeneko, 65 urtetik gorako talde txoak finkotasuna hartu du. "Hilean behin biltzen gara, 25 bat heldurekin. Otsailean gure asmoen aurkezpena egin genien, beti ere askari baten inguruan. Martxoan, joko ezberdinen bidez taldea sendotzeko lana egin genuen. Apirilean bide horri jarraitu genion eta maiatzean umorezko tailerra egin genuen. Oso gus-

tura aritu ziren; oso balorazio ona egin dute. Afari merienda ere egin genuen elkartean. Aurrerantzean ere, parte hartu nahi duenarentzat guztiz irekita egongo da ekimena". Udalarekin elkarlanean ari dira bolondresak eta haien babesa dute euren ekintzak antolatzeke. "Udalak martxan du "Ibilbide osasuntsuak" izeneko ekimena. Helduen taldeko kideei ibilbide horien diseinuetan parte hartzeko gonbita luzatu genien, eta gogotsu azaldu ziren. Ekaineko bileran jasoko ditugu haien proposamenak", azaldu dute.

BOLONDRES BERRIAK

"Ahoz ahoko lanari esker, bolondres kopurua hazi egin da. Norbaitek parte hartu nahiko balu, atek guztiz zabalik ditu.

"Horrelako ekimenak oso garrantzitsuak dira herri egitura sendotzeko, eta gerturatzen diren guztiak ongi etorriak izango dira"

Hileko bigarren astelehenetan biltzen gara Lizardi etxean, 18:30etatik aurrera. Horrelako ekimenak oso garrantzitsuak dira herri egitura sendotzeko garaian eta gerturatzen diren guztiak ongi etorriak izango dira. Herrian landu beharreko beste gai batzuk edota ideia berriak sor daitezke hortik eta gu zabalik gaude".

Ondo pasa festetan!



TRANSPORTES Lakunza

Eguneroko zerbitzua Bizkaiara

609 434 910 - 609 401 884 - Tel.: 943 693 212 - Faxe: 943 694 924
www.transporteslakunza.com - info@transporteslakunza.com
A Industrigunea - 16. pabilioia, 20159 ASTEASU
52 P.K., 20150 AMASA-VILLABONA



Baserriko haragia Urdaitegi berezia

Bulandegi bidea,1. Zizurkil
943 696 242

Patxine jatetxea



Ondo pasa festetan!

Gure berezitasuna:
**EUSKAL SUKALDARITZA
ETA ETNEKO POSTREAK**
Errementari,1 - ASTEASU
Tel.: 943 69 10 25

Haritz Mujika, gai-jartzaile bertso saioan

SAN PEDRO JAIK BARRU-BARRUTIK GOZATZEA GUSTATZEN ZAIO HARITZ MUJIKA GAZTE ASTEASUARRARI. EGUNEZ ETA GAUEZ, HAINBAT EKITALDITAN PARTE HARTUKO DU AURTEN ERE.

Ekainaren 26an Sanpedroetan antolatuko den bertso saioko gai-jartzaile izango zara. Nolako saioa izaten da Asteasukoa? Haritz Mujika. Saio indartsua izaten da. Asteasuko jaiak uda hasieran direnez, bertsolariak oso gogotsu etortzen dira, nekerik gabe. Jende asko etorri ohi da inguruko herrietatik. Aurten ere maila handiko bertsolariak etorriko dira; Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Iker Zurbeldia eta Amaia Agirre.

Iazko jaietan egin nituen, lehendabizikoz, gai-jartzaile lanak. Amaia Agirre aritzen zen normalean, baina bertsoan aritzeko gogo zuela, eta niri luzatu zidan proposamena.

Pentsatu al duzu nondik nora bideratuko duzun aurtengo saioa?

H.M. Herriko jaiak direnez, ez dut gai serio gehiegi sartzeko asmorik. Zenbait gai prest daukat dagoeneko. Gai mordoxka prestatu eta bertso eskolako lagunei jarri nizkien, emaitza ikusteko. Gai batzuk baztertu eta beste batzuekin aurrera egitea erabaki nuen.

Halako bertsolarien ondoan aritu beharrik errespetorik ematen al dizu?

H.M. Niri errespetu pixka bat ematen dit, baina ziurraski beraiei errespetu handiagoa emango die asko aritu gabeko gai-jartzaile baten aginduetara ibili beharrik. Nolanahi ere, bertsoan pixka bat ibilia naiz eta bertsolarien lana errazten saiatuko naiz. Amaia Agirre kantuan aritzeak ere asko laguntzen dit. Amaia bigarren ama bezalakoa da niretzat eta badakit edozein apurutatik ateratzen lagunduko didala.

Eta herrian aritzeak?

H.M. Horrek gehixeago. Ondo eta gaizki egindakoak gogoan izaten ditu jendeak eta oholtzatik jaitzi bezain laster, bakoitza bere iritzia ematen hasten da. Ikasteko balio du horrek, baino errespetua ere ematen du.

Haritz bertsozale elkartearen txapelketan hartu zenuen parte Aiztondoko taldearekin. Zer moduzko esperientzia izan zen?



Haritz Mujika gaztea, bertsolari eta gai-jartzailea.

H.M. Oso aberasgarria izan zen. Bertsoan pixka bat ibiltzen garenok, ahalki eta ondoen egitera joaten gara txapelketetara. Haritz elkarteak antolatutako honetan, ordea, gutxi ibiltzen den jendearekin aritu ginen eta haiek batere presiorik gabe joan ziren. Festa kutsua eman zion horrek txapelketari.

Polaroidarekin

Sanpedroak iristear dira. Gogotsu al zaudete?

H.M. Bai, aurten oso gogotsu nago.

Bertso saioan ez ezik, zein ekintzatan hartuko duzu parte herriko jaietan?

H.M. Soka-dantzan parte hartzen dugu herriko gazteok. Ohitura zahar horiei eustea beharrezkoa dela iruditzen zait eta asko gozatzen dugu egun horretan. Horrez gain, igandeko kalejiran eta as-

teleheneko jaialdian panderoarekin arituko naiz.

Egitaraua eskuartean, zein ekintzatan ez duzu hutsik egingo ikusle bezala?

H.M. Ahal dudan ekitaldi gehienetara joatea gustatzen zait.

Herriko jaiak gozatzeko dira eta horretan saiatzen naiz.

Ekintzaren bat gehituko al zenuke aurtengo egitarauan?

H.M. Ekintza bat gehitu baino, gazteak plaza inguruan ibiltzera bultzatuko nitzuke gustura.

Jaietan, eguna ala gaua nahiago?

H.M. Asko gustatzen zait eguneko giroa, iluntzetan sortzen dena bereziki.

Jateko? Eta edateko?

H.M. Jateko edozer. Edateko berriz, lejia eta ura.

Dantzazalea al zara? Eta parrandazalea?

H.M. Geroz eta dantzazaleagoa naiz. Askok gustatzen zait plazan dantza egitea, jende ezberdinarekin egoteko aukera ematen duelako. Saltsan ibiltzea gustatzen zait, baina ez dut gaupasa handirik egiten. Eguna argitzerako erretiratzen naiz.

Ajerik izaten al da parrandaren ondoren?

H.M. Bai, nahiz eta parranda handirik ez egin, hurrengo egunean gorputzak ez du berdin erantzuten.

Parrandarako konpainiarik gustukoena?

H.M. Herriko festetan, adin ezberdinetako jendearekin egotea gustatzen zait. Gainerakoan, koadrilakoekin edota bertso-eskolako lagunekin izugarri gustura ibiltzen naiz.

Zein mezu luzatuko zenieke herritarrei?

H.M. Plaza ingurura gerturatze eta jaietz gozatzeko.

OGI ZURI  **OGI GOXO**

OKINDEGIA, S.L.
Lizarrate-eta, 32. Elizmendi auzoa. ASTEASU ☎ 943 691 896

OGI-ZURI
Bulandegi bidea 1-3. ZIZURKIL ☎ 943 691 000

OGI-GOXO
Kale Nagusia, 26. AMASA-VILLABONA ☎ 943 693 294

FESTAK ONDO IGARO!

Ogi berezi eta artesanak - Etxerainoko zerbitzua

ERAKUNTZAK - ASFALTOAK

BIXENTE OTEGI LIZASO, S.L.

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Elizmendi, 44
20159 Asteasu (Gipuzkoa)
Tel./Faxa: 943 690 178
bixenteotegi@terra.com

Sanpedroak Asteasun 2014, egitaraua



Sorginen jaitsiera ekainaren 26an.



Soka dantza ekainaren 29an.

Ekainak 21, larunbata

16:30 Karta txapelketak frontoian. Mus txapelketa herrikoia: 16 urte arte eta 16 urtetik aurrera (bikoteko bat herrikoa izango da).

15:45-16:15 Izen-ematea.

16:20 Zozketa.

16:30 Txapelketaren hasiera. Txintxon txapelketa herrikoia 16 urtetik gorako herrikoentzat).

Ekainak 22, igandea

18:00 Dantza emanaldia: Asteasu, Larraul eta Adunako dantza eskolak. Oinkari dantza taldea.

Ekainak 23, astelehena

21:00 San Juan sua, tradiziozko dantza.

Ekainak 26, osteguna

17:30 Asteasuko pilota eskolako txapelketako alebinen finala, Atzapar pilota elkarteak antolatuta. Nesken pala txapelketako finala.

18:15 Arkupeko pielota txapelketako finalak.

19:00 Asteasuko Aitzondo txirindulari elkarteak antolatutako Asteasuko pala txapelketako finala.

20:30 Sorginaren jaitsiera. Txupinazoa (Asteasuko bolondres taldeak). Kalejira.

22:30 Bertso saioa. Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Amaia Agirre, Andoni Egaña, Iker Zubeldia. Gai-jartzailea: Haritz Mujika. Ondoren, erromeria Iñolaz taldearekin.

Ekainak 27, ostirala

Haurren eguna

10:00 Haurren krosa. Marrazketa lehia-keta.

12:00-14:00 Haur parkea frontoian.

14:00 Haurren arteko bazkaria plazan.

15:00-17:30 Haur parkea frontoian.

17:45 Haurrentzako emanaldia "Motxila bete ipuin". Ondoren zezen txiki eta poneyak.

19:00 Ikurriñaren aldeko ekitaldia.

21:30 Herri afaria. Ondoren DJon.

Ekainak 28, larunbata

Koadrilaren eguna

11:00 Asteasuko auzoen arteko futbol torneoa eskolan.

14:30 Koadrilaren arteko bazkaria.

18:00 Musika kalean: Jainekin txaranga.

18:30 Esku pilota partiduak. Afinionatu maila: Arrieta - Gorrotxategi / Urbietta - Erasun. Profesional maila: Jaunarena - Pascual / Aritz Lasa - Julen Urruzola.

11:00 Rock kontzertuak: Desira + Dolce & Tangana + Kauta.

Ekainak 29, igandea

San Pedro eguna

10:00 Diana

11:00 Meza nagusia. Ondoren Elizmendin: Hamaiketakoa, soka-dantza. Asteasuko pilota eskolako txapelketako finalak: Aurrebenjaminak eta benjaminak.

18:00 Herri kirolak Asteasuko taldeen artean.

19:00 Asteasuko musikarien kalejira. Sagardo dastaketa eta patata tortilla txapelketa. Sagardotegiak: Sarasola, Etxeberria, Zabala, Aburuza eta Urdaira.

22:30 Ezten taldearekin erromeria.

Ekainak 30, astelehena

Jubilatuen eguna

11:00 Meza. Ondoren Aitzondo elkar-teak herriko jubilatuei eskaintzen dien hamaiketakoa.

13:00 Herri kirolak. Harrijasotzaileak: Joxe Ramon Izeta eta Ostolaza. Aizkolariak: Ugaitz Mugerza eta Joseba Otaegi.

14:30 Jubilatuen bazkaria frontoian. Bertan izango dira: Zapre eta Zaharra trikitilariak. Telleria eta Zerberio bertsolariak.

18:00 Musika jaialdia plazan. Asteasuko Trikitixa eta Pandero eskola. Beste musikariak. Ondoren sorginaren igoera.

Jaien jarraipena: www.aiurri.com

Iturri-Ondo
Jatetxea
 Jai zoriontsuak igaro
 Tel.: 943 691 331
 20159 ASTEASU

Gora Sanpedroak!
Ondo pasa jaietan!

ADOS MUNTAIK, S.L.
 Asteasuko Industrialdea
 A gunea-15, 20159 Asteasu
 Tel.: 943 694 384
 Faxe: 943 694 375
info@adosmuntaiak.com
www.adosmuntaiak.com

Ekainaren 21etik
30era bitarte
Sanpedroak
Asteasun

Ondo pasa jaietan!

Asteasuko Udala



2014, ekaina

Gora herria!
Gu zugan garena zara!

Patxi Etxeberria urtez urte, plazaz plaza

KLASIKOA, BETERANOENA PLAZATAN DABILTZANEN ARTEAN. NEURRI ETA ERRIMETAN ZEHATZA. AHOTS INDARTSU ETA DOTOREAREN JABE. PATXI ETXEBERRIA LASARTE-ORIATARRA SAN JUAN EGUNEAN KANTARI ARITUKO DA.

Noiz izan zinen azkeneko aldiz Andoainen bertsotan?

Patxi Etxeberria: Aspaldian izan ote zen errezeloa daukat! Lazkao Txiki, Lasarte eta hirurok aritu ginela esango nuke, Sanjuanetan. Bestelakoan, Sorabillan biz-pahiru alditan kantatutakoa naiz.

Nolako umorez zatoz Andoainera?

P.E.: Egia esango badizut, harridura izugarria sentitu nuen deia jaso nuenean. Baita poza ere, 84 urte dituen pertsona batekin gogoratzeagatik.

Ikusita norekin naizen kantatzekoa, ur handitan sartuko naizen tankera hartzen diot egunari, baina lana txukun egiten ahaleginduko naiz. Oso gustura joango naiz behintzat! Niretik dena emango dut eta ateratzen denarekin itzuli beharko da etxera, isil-isilik!

Patxi, oraintxe ez zara, bada, beldurtzen hasiko... Plaza ugari egindakoa zara-eta...

P.E.: Egia da hori, baina oso azkar doa oraingo bertsogintzaren trena, azkar doanez! Makina azkarrak, sasoikoak, oso jantziak dira oraingo bertsolariak.

Gasolina soberan daukazu oraindik...

P.E.: Baina ez dakit zenbaterako! Burua ez baitabilkit garai batean bezala. Burua azkar eta argi eduki behar da bertsotan egiteko. Gauza askok kointziditu behar dute egun ona edukitzeko, osasun aldetik pattalaldirik ez edukitzea, besteak beste.

Bertsolarien elkartekoek-eta esaten didate zaharrena izango naizela plazatan dabiltzaneren eta ez dabiltzaneren artean, eta halaxe izango da. Egin kontu, ni bertsokide askoren aitona izan naitekeela!

Maialenek, Egañak eta besteek beti esan ohi didate "Patxi, guretzat ohore bat da zurekin bertsotan jardutea!". Badakit bihotzez esaten didatela hori, eta esker-tzen diet. Egiantan, niretzat behar luke izan ohorea eta pribilegioa, izugarritzko maila duten bertsolarien ondoan aritu ahal izateagatik!

Ederki modaltzen zara gazteekin. Eta gaiekin? Izan ere, aktualitatea jarraitzea eskatzen du gaurko bertsogintzak...



Orion hil berri zaion ilobaren omenez bi bertso idazten ari zela topatu dugu Patxi Etxeberria, bere etxean.

P.E.: Egia esango dizut: apenas irakurtzen dut egunkaririk. Atzokoa irakurri nuen, baina ilobaren eskela zetorrelako hartu nuen. Gauza beltza da hori, ni bezalako ilustratu gabekoentzat. Harrigarria izaten da edozein gai moderno jarri, eta gaurko bertsolari demonio horiek zenbat hitz eta zenbat arrazoi botatzeko kapaz diren! Nire zailtasuna nabarmentzen da halakotan, baina hala ere, nondik edo handik abiatuta airoso ateratzen saiatzen naiz. Izan ere, dauzkazun baliabideak erabiltzen dituen eskolakoa bainaiz. Entzuleen artean bada trebezi hori estimatzen duenik, eta aurrera!

Zenbat alditan galdetu ote dizute atzoko eta gaurko bertsolararien arteko aldeaz...

P.E.: Makina batean! Azkenekoz, herenegun, andre batek esan zidan: "haiek ziren bertsolariak, haiek, eta ez oraingoak!". Batetik, Uztapide, Baserri, Lazkao Txiki, Lasarte eta horiek denak eskola gutxikoak ziren, konforme, baina a ze no-

lako bertso isuria zeukaten! Bestalde, BE-Cen egin den azkeneko txapelketan bertan izan nintzen, eta aho zabalik pasa nuen egun osoa. Hura zen bertso etorria! Bakoitza bere garaikoa da eta ez dakit konparatzen hasteak merezi ote duen. Kontua da bertsoa baloratzen dakien batek aitortu beharko lukeela egundokoa dela gaurkoen bertsokera, izugarria!

Urnietan urtean hiru txandetan aritzen zara. Ez dira aspertzen zurekin nonbait...

P.E.: Joan deneko hogeita hamar urtetan izan naiz, bai! Sanisdrotan, Azkorteke jaietan eta Sanmieletan. Horrelaxe errepikatzea hainbeste urtetan, bakar-bakarrik Donostian Karmengo jaietan eta Zeraingo jaietan gertatzen zait. Tira, urtero joateko hots egiten didate, eta nirekin konforme geratzen diren seinale izango ote da! Ederki eskertuta nago Urnietarekin!

Beñat Gaztelumendirekin bikote egin duzu azken bi urtetan Urnietan...

"Harridura izugarria sentitu nuen San Juan jaietan kantatzeko deia jaso nuenean. Baita poza ere, 84 urte dituen pertsona batekin gogoratzeagatik"

P.E.: Joxe Agirre edo Txomin Garmendia izan ditut bikote urtetan, eta azken aldian Beñat Gaztelumendirekin aritutakoa naiz, bai. Iaz Txominek beste konpromisoren bat zeukala eta, Beñati hots egin nion. Banituen erreparoa, ea 23 urteko gazte batekin nahiko ote zuen 84 urteko agure batekin jardun, baina agudo eman zidan baiezkoa! Gainera, saioa amaituta, zera aitortu zidan: "Patxi, gaurko eguna ez zait sekula ahaztuko!". Oroitzapen ona gertatu zen harentzat ikusten denez, eta pozik itzuli ginen etxera biok.

Harrezkero, Zerainen, Aginagan eta berriro Urnietan elkartu gara eta zeharo gustura moldatu izan gara biok. Eliza barruan abesteko ez dauka erreparorik, gazteen artean ez baita erraza halakorik bilatzea. Bertsotarako oso mutil azkarra izateaz gain, zintzoa eta leiala da bertsokide gisa. Bada, zer gehiago behar ote du ni bezalako batek?

Maddi zure biloba ere hasita dago bertsotan...

P.E.: Poza sentitu behar, noski! Aurrekoan, Larraul-Andoain herri arteko neurketan izan ginen andrea eta biok. Bera Larraulgo taldean aritzekoa zen, eta gu hara joatea nahi zuen. Saioaren amaieran "Maddi, gustura aritu al zara?", galdetu nion. Baietz erantzun zidan, eta poz ederra hartu nuen, hori baita gaztetan garrantzitsua.

Egia esan, bertsotan erraz aritzen den tankera hartu nion. Hamasei urte besterik ez ditu; ikasketak ez ezik, bibolina, kantua, kirola..., aktibitate asko dauzka eta ahaleginak egin beharko ditu denak aurrera eramaten. Bitartean, dabilela, dabilela bertsotan! Bertsoa barru-barrutik bizituko du, eta harrezkero bertsoa egin ten edo entzuten jakingo du betirako.

G.F. HIZKUNTZ AKADEMIA
ANDOAIN

- Udarako ingelesa eta alemaniera, ikastaro trinkoak
- Maila eta adin guztiak
- Eskolako laguntza

GORA SANJUANAK

943 591 508

Txistoki Pasealekua, z/g
20140 - Andoain
Tel.: 943 593 525
www.andoainkastola.net

JAIETAN ERE EGIN EUSKARAZ

San Joan jai zorientsuak opa dizkizuegu

Aurtengo pregoia Elizondo tabernara begira

AURTENGO SANJUANETAKO PREGOIA ELIZONDO FAMILIAK IRAKURRIKO DU, ETA EUREK BOTAKO DUTE TXUPINAZOA UDALETXEKO BALKOITIK.

Jose Luis senideetako baten esanetan, proposamenak ezustean harrapatu baditu ere, pozarren beteko dute lan hori. Elizondotarren iraganaz eta orainaz hitz egin du Jose Luisek Aiurriekin.

Nola hartu duzue pregoilari izateko izendapena?

Jose Luis Elizondo: Harrigarria izan da kontua guretzat, baina aitortu behar dut egundoko ilusioa egin digula guztioi. Ezustean etortzen diren albisteak egiten dizute ilusiorik handiena maiz, eta hala-xe gertatu zaigu guri oraingoan.

Beste hautagaien zerrenda irakurtzen hasita, erreparo pixka bat ematen digu kontu honek. Izan ere, konturatzen zara Andoaingo gizarteari ekarpen handia egin dioten pertsona eta elkarteak agertzen direla. Horrek izugarritzko errespetua eragiten digu, ze, azken finean, etxetik kanpo eginkizunik betetzen ez duen familia baita gurea.

Proposatzaileen ustez, herritarrek biziki estimatzen dute zuen familia. Elizondo taberna ia-ia gizarte ondareztat jo daitekeela diote, eta zuen umorea ezinbestekoa dela Sanjuanetan ez ezik baita urte osoan ere...

J.L.E.: Egia esan, eskertzekoak dira horrelako goraiamenak, eta gainera, horiekin bat egin izana jai batzordea osatzen duten askok.

Argi dagoena da Trinik (Goñi), aurtengo urtarrilean zendu den gure amak landu zuela gehien gure familiarekiko sinpatia. Jende guztiarekin ondo konpontzen zekien pertsona zen bera. Familiako gainerakoak, nortasunez "egoskorragoak" garaela esango nuke.

Bera zen familiaren eta etxearen zutabe nagusia, eta ederki ari gara nabaritzen bere falta joan zenetik.

Ama Nafarroan jaioa zen, ezta?

J.L.E.: Bederatzi senide zituen Leitzako familia bateko kidea zen. Gurekin bizi den Txaro, bere ahizpa, etorri zen lehen-bizi hona 60ko hamarkadan, zerbitzari bezala. Atzetik gure ama heldu zen, Lekunberriko Ayestaran hotelean telefonista lanak utzita. Gure aita ezagutu, biak ezkondu, eta lau mutil ekarri gintuzten mundura.

Ba al dakizue Elizondo taberna noiztik datorenen?

J.L.E.: Data zehatzik emateko modurik ez daukagun arren, pentsatzen dugu tabernak honezkero ehun eta hogeit bat urte egingo zituela Elizondo izenarekin. Orain urte batzuk, zenbait zaharrek eztabaida eduki zuten ea zein zen tabernarik zaharrena Andoaingen, Exkerrena ala Elizondo. Hortik atera kontuak!

Gutxi gora-beherako historia kontatzen hasita, esan behar da aurretik ere



Elizondo familiako hiru belaunaldi. Jose Luis Elizondo aita; Javier, Jose Luis, Juan Jose eta Ramon semeak; eta, zortzi bilobetatik hiru (Maddi, Maialen eta Elizabete). Horiek batera, Txaro Goñi Jose Luis Elizondoren koinata eta Elizondoko ileapaindegiaz 50 urtez arduratu zen Juantxo Olazabal ageri dira.

ostatu modukoa izango zela; etxearen izena ez zen Elizondo, Iriarte Handi baizik. Madina familia zen bere jabea, eta honek Larrabide baserrian jaiotako Basili Ganborena hartu zuen alabatza. Gure birraitona (Praxku Elizondo) adunadarra zen, eta nekazarientzako produktuak saltzen ibiltzen zen herriz herri. Bada, Basilisarekin ezkondu egin zen XX. mendearen hasieran, eta bertara etorri bizitzera. Harrezkero, etxeak Elizondo izena hartu zuen.

Pentsatzekoa da burdindegia tabernaren ondoan jartzearen ideia ere birraitonarena izan zela. Aurreneko urtetan, gure amak jardun zuen bertan; gure aita, berriz, ileapaindegiaz arduratzen zen.

Ileapaindegi bat Elizondon. Hori ere gogoa dauka jende askok Andoaingen...

J.L.E.: Gure aitak utzi zuenean, Juantxo Olazabalek jarraitu zuen negozioarekin. 50 urte beteko zituen gizonak ileapaintzaile bezala! Urte horietan, gainera, bere bost semeak (Iñaki, Joanjo, Imanol, Xabier eta Josu) laguntzaile eduki zituen.

Makina bat pasadizo edukiko duzue...

J.L.E.: Konta ezin ahala! Bai geuk bizi izan ditugunak, eta baita jendeak kontatzen dizkigunak! Jesus Mari Otamendi txistulariak askotan animatu nahi izan gaitu liburua idatz dezagun. Egia esan, nik neronek, pasadizo eta xelebrekeriak

“Ama zen familiaren eta etxearen zutabe nagusia, eta ederki ari gara nabaritzen bere falta joan zenetik”

egunero-egunero biltzeko tentazioa sentitzen dut askotan. Kosta egiten zait pauso hori ematea, ordea!

Baten bat kontaktuko al diguzu?

J.L.E.: Ileapaindegia aipatu dugunez, gure aitak maiz aipatzen duena kontu dezaket: 60ko hamarkadan, Andoaingen emigratioaren fenomenoak bizitzen hasi eta agudo, etorkin ugari Elizondora hurbiltzen hasi zen, maleta eskuan zuela; arrotza zen dena haiantzat eta ostatu eskatzen zuten, Andoaingen non edo han lekua bilatu arte. Gure amona Juanita Oiartzabal, Isaltxiki baserriko alaba, apartekoa zen jendeari harrera egiten, eta baietz esaten zien denek. Modu horretan, gure aitak, maiz, ileapaindegian igaro behar izaten zituen gauak, bere logelari apopilo etorri berriak zeudelako. Noizean behin, bat baino gehiago etorri izan zaigu gogora ekarri eurek txikitzen egunak egin zituztela gure etxean.

Bestalde, jende pila etortzen zaigu gure familia pilotarekin lotzen dituzten pasadizoak kontatuz, belaunaldiz belaunaldi beti mantendu izan baitugu zaletasun

hori. Badakizu, frontoiak gertu-gertu edukita... Adierazten digutenez, gure birraitonak, aitona eta aitak modu honetara eta hartara jokatzeko omen zuten Kontsejupean, eta ez dakit zer eta badakit zer apustu mota egiten omen zituzten...

Ezin uka zuen etxea leku estrategikoan dagoenik herrian. Makina bat sekretu gordetako du zuen tabernak...

J.L.E.: Egia da jende eta elkarte ugari hautatzen dutela gure taberna beren hitzorduak eta bilerak egiteko. Baina nik ez nuke esango herriko erdigunean gaudenik; izan ere, Andoainek ez dauka erdigunerik!

Garai batean, esaten dutenez, Udaltzainak erabaki gehiago hartzen omen zituzten taberna barruan udaletxean baino. Nonbait, plenoak giro hotzean egiten ziren eta zinegotziak ez ziren ausartzen garbi hitz egitera. Handik atera, eta hona etorrita, mahaiaren bueltan eta baso-erdi baten laguntzaz hasten ziren hizketan, proposamenak egiten eta erabakiak hartzen. Horrelakorik ez da gertatzen gaur egun.

Bestalde, esan beharra daukat, politika zela medio oso urte gogorak bizi izan genituela 80ko eta 90eko hamarkadan. Giroa gaiztotuta zegoen gizartean, eta askotan, batzuekin edo besteekin hizketan jarduteagatik, gaizki begiratzen gintuzten. Ez zegoen guztiekin ondo moldatzeko modurik.

Kauta taldearen emanaldia Nafarroa plazan

SAN JUAN JAIETAN ZUZENEAN ARITUKO DA KAUTA TALDEA, DISKO BERRIA AURKEZTEN. EKAINAREN HOGEIAN IZANGO DA ETA TALDEKIDEEK AZALDU DUTENEZ, ETXEAN JOTZEA BETI DA BEREZIA.

Mikel Moreno abeslari eta gitarjolearekin eta Adrian Elustongo baxuarekin elkartu da Aiurri, euren azken diskoaz eta San Juan jaietako kontzertuaz hitz egiteko.

Zuen lehenengo kontzertua Andoaingo Gaztetxean izan zen, 2002. urtean. Nola aldatu da Kauta orduetik hona?

Mikel Moreno: Iker bateriarekin eta koadrilako laguna den Xabi gitarrarekin grabatu genuen maketa. Ondoren, Ikerrek taldea utzi eta lehenengo diskoa Xabirekin grabatu bagenuen ere, gero berak ere uztea erabaki zuen. Beraz, bigarren diskoetik aurrera hirukote bezala jarraitu dugu eta taldea bera aldatzeaz gain, urte hauetan guztietan asko ikasi dugu.

Adrian Elustondo: Gorka bateria maketa grabatu genuenean sartu zen. Beraz, laukote izatetik hirukote izatera pasa gara eta, dudarik gabe, urte asko pasa denez, formazioa jaso dugu.

Zuen ibilbidean zehar atsedendaldia egin zenuten, zer dela eta bost urteko geldialdia?

A.E: 2009an geratu ginen, baina ordura arte maketa eta hiru disko atera genituen, eta kontzertu mordoa eskaini genuen. Ikusi genuen geldiune bat behar genuela, ordura arteko bidea oso intentsoa izan baitzen.

M.M: Atsedean hartzeko ere ondo etorri zen. Konposiziorako urtebete eta kontzertuetarako beste urtebete behar izaten genituen, eta gustura aritzen ginen arren, neketsua zen. Gainera, gauza berriak probatzeko gogoz ginen. Konposizioari garrantzia handia eman izan diogu beti eta hirugarren diskoarekin zer kontatu oso argi ez genuen



Mikel, Adrian eta Gorka Kauta musika taldeko kideak.

ueña iritsi zen. Ez genuen zer kontaturik eta atsedena hartzea eta proiektu ezberdinak egitea erabaki genuen. Bost urteren ondoren, badugu zer kontatu eta horiek kontatzera itzuli gara.

Atsedendaldi hori ere disko berria prestatzeko erabili duzue...

M.M: Bai, azkeneko urtean go-go sartu zitzaigun eta disko berria grabatu genuen.

A.E: Orain, gainera, lokala daukagu entseatzeko eta bertan maketa batzuk grabatu ditugu. Mikelek idatzi ditu abestiak, ondoren osatzen joan gara. Izan ere, proposamena atera eta bakoitzak bere ukituak ematen dizkio, borobiluz.

Itzuleraren ondoren zaleek harre-ra ona egin al dizute?

A.E: Bai, jendearen harrera oso ona izan da eta, gainera, konturatu gara orain gure zaleak hel-

duagoak direla, hau da, lehen entzuten gintuztenek oraindik jarraitzen gaituztela.

M.M: Guk hamazortzi urte inguru genituen jotzen hasi ginen eta jende gaztea mugitzen genuen, 15-19 urte ingurukoa. Orain, noski, hogeita hamarretik gora urte ditugu eta zaleak ere zahartu egin dira, beraz, kontzertuetara gure adineko jendea joaten da. Hamabi urte pasa dira eta urteak ez dira alferrik pasatzen, gu zahartu garen bezala, zaleak ere zahartu egin dira. Baina poztekoa da hor jarraitzen dutela ikustea.

Orain "Agerre" baserrian entseatzeko duzue. Zergatik eman diozue diskoari izen hori?

M.M: Bost urte hauetan bertan egon gara gauza berriak probatzen eta diskoa bertatik atera da, beraz, uste genuen ezkututik ikusten ez zen zerbaite zela

eta agertu behar zuela. Puzzlea bideoklipa ere bertan grabatu dugu.

Zein dira disko honen ezaugarri nagusiak edo bitxikeriak?

M.M: Ilustrazioan balio erantsia eman diogu diskoari eta letrak eta marrazkiekin egindako lan interesgarri bat dago. Horrez gain, beti saiatzen gara letra eta musika elkarrekin joan daitezzen. Oihukatzea bezala da, gauzak esaten ditugun moduaren arabera, suabe ala ozen, ez da berdín jasotzen. Musikarekin gauza bera gertatzen da; indarrarekin adierazi ala ez, gauza bat kontatu ala bestea, momentu horretan sinesgarritasun gehiago izan dezake edo gehiago hunkitu dezake. Diskoan agertzen diren istorioak azken bost urteetan gertatutakoak dira; Sahara-Palestinako istorioa, bidaiak, maitasun kontuak... Is-

"Bost urteren ondoren, badugu zer kontatu eta horiek kontatzera itzuli gara"

torio horiek guztiek gurekin zerikusia handia dute.

Zein aurreikuspen duzue etorkizunerako?

M.M: Apurka-apurka kontzertuak ateratzen ari dira. Hilabete hauetan ondo ibili gara eta asero izan dugu kontzerturen bat. Udari begira pixka bat geldirik dago gauza, baina egia da kontratazioak ere berandu dabiltzala. Orokorrean, oso pozik gaude, gustura.

Sanjuanetan Andoainean izango zarete, zer espero duzue?

A.E: Andoain da gehien jo dugun herria eta, egia esan, Sanjuanetan jotzea beti da berezia.

M.M: Hala ere, plaza oso gogorra da. Kanpoko jendea etortzen denean ere beti esaten dute jendea oso geldia dela eta ez direla animatzen. Gu ere kontzertuak ikustera joaten garenean, ez gara mugitzen, giro geldia izan ohi da. Oholtza gainean gaudenean, ordea, hori gogorra egiten da eta asko igartzen da. Gainera, jende ezaguna izango dugu begira eta hauek normalean kritikoa goak izaten dira. Jende ezaguna batzuetan arduratuta eta urduri egoten da, beraiek ere ondo ateratzea nahi baitute.

Andoaindarrei anima daitezene esan nahi diozue orduan...

A.E: Hori beti. Jendeak goza dezala musikaz eta aska daitezela, guri horrek ere asko laguntzen baitigu.

Zatoz jaietan!

AKER BELTZ

Taberna

Nafarroa plaza, 1-B
20140 ANDOAIN
☎ 943 300 846

MUJKA TOLARETXIPI ANAIK

MAPFRE



ANDOAIN

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Zerbitzurik onena preziorik hoberenean

Eskola kalea, 8 / ☎ 943 592 307 / Faxa: 943 300 161 / 20.140 ANDOAIN / e-posta: gailen@euskalnet.net

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.com. Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com

Erredaktoreak:

Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com

Publizitatea:

Fernanda Irazu. publikitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com www.aiurri.com
Lege Gordailua: SS-1078/04
ISSN: 1698-4870
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.com. Tel.: 943 300 732

Banatzzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Gaizka Bernardo (Urnietan).
Inprimategia: Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.



Agenda

EKAINAREN 19TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

Ekainaren 21etik 23ra zine ez da emankizunik izango. Ekainaren 28tik 30era: "A veinte pasos de la fama".

Erakusketak

Andoain

Kultura batzordeak antolatutako ikastaroetako ikasleek egindako lanak: pintura, egur taila, eskulanak eta panpinak ere. Ekainak 20-28. Biak barne.

Urnietan, Lekaio

Eskulturak, Angelo Jimenezen eskutik. Ekainak 19-20.

Ospakizuna

Andoain

AEKk ikasturte amaierako "pintxo poteoa" antolatuta du, Basteron hasita. 18:30. Bastero kafetegia. Ekainak 19, osteguna.

Sariketak

Andoain

Rikardo Arregi Kazetaritza Saria, sari banaketa ekitaldia. 12:00. Bastero. Ekainak 28, larunbata.

Bertsoak

Urnietan, Besabi

Sustrai Colina eta Amets Arzallusekin bertso afaria, Jon Lizarribar eta Ruben Genbeltzuri elkertasuna adierazteko. Txartelak salgai: Kantoi, Besabi, Xauxar. Uztailak 4, ostirala.

Odol emaileak

Eskualdea

Andoain. 18:30-20:30. Uztailak 8, asteartea.
Urnietan. 18:30-20:30. Uztailak 14, astelehena.

Sanjuanak

Andoain

Ekainaren 20tik 24ra Andoaingo jai nagusiak. Egitarau osoa eta informazio osagarria gehigarri berezian. Ekainak 20-24.

Urnietan

San Juan sua. 22:00. Jakutegi plaza. Ekainak 23, astelehena.

Kaletxiki

Andoain

Sanpedroak iristear dira Kaletxikira. Ekainak 27-29.

Kultur Astea

Urnietan

Denda Berri elkartearen eskutik.
Ekainak 20, ostirala: 10:00 Goizeko irteera: Urnietan, Aingeru goardakoa, Igara auzoa. Bazkaria Aratz jate-txean.
Ekainak 21, larunbata: 08:00 Mundakara irteera. Gaztelugatxera bisitaldia eta ondoren bazkaria Berriatuako Laka Erdin.

Ekainak 22, igandea:

18:00 Dantzaldia Iribarren orkestrarekin.

Ekainak 23, astelehena:

18:00 Duo Imperial taldearekin festa: mariatxiak eta salsa musika. Ondoren, otartekoak terrazan. 22:00 San Juan sua.

Irteera

Andoain

Euskalduna taldearekin, Gipuzkoako itzuliko 7. etapa: Kanpazar - Kruzeta . Jarindo (896m.) - Arlaban. Irteera busez: 07:30. Info: euskaldunamt.com. Ekainak 22, igandea.

Ikastaroak

Urnietan, Sarobe

Pilates, yoga edota gimnasia hipopresiboa. Ikastaroak goizean nahiz iluntzean eskainiko dituzte, astean zehar. Info: 943 00 80 42. Uztailan zehar.

Andoain

Ibilgailuen txapa eta pintura eta soldadura laguntzaile izateko ikastaroak, 15-17 urte bitarteko gazteentzat. Aurrematrikula ekainaren 20ra bitarte. Informazioa: 943 304 221. Matrikula: uztailak 1-15.
Andoaingo AEKk udako eskaintza aurkeztu du: Hizkuntza eskakizunak, 1. eta 2. maila. Bi aukera: Uztailak 1-30. Irailak 1-24. EGA prestatzeko: Uztailak 1-30. Irailak 1-12. Izen-ematea: Ekainaren 20ra arte.

Eskualdea

Helduen heziketa eskola, Hernanin edo Andoainen ikasteko aukera. Matrikulazioa zabalik. Informazioa: Hernani. 943 33 53 18. Andoain. 943 30 40 21.

Aisialdia

Andoain

Uda Gaztea 2014: Gozointza tailerra, piraguismoa Leitzaranean, Goma Eva tailerra, txapa tailerra, kirola abentura parkera irteera,... Gazte Lokala. Uztailan zehar.

Urnietan

Gaztelekuaren eskutik, ekainean eta uztailan. Ekainak 30-uztailak 4: Tailerrak, irteerak, etab. Uztailak 9, asteazkena: Amaiera festa.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Ekainaren 18angure amona **Ixabel**ek urteak bete zituen. Oso ondo pasa zenuelakoan haritzazu hiru muxu pottolo-pottolo gure partez. Asko maite zaitugu. Kimetz, Aratz eta Arane.

URNIETA

ZORIONAK




Koldok San Juan egunean 6 urte beteko ditu. Zorionak gure txikiari eta muxu handiak familiaren partetik.

ANDOAIN

ZORION AGURRAK
diseinua@aiurri.com

ZORIONAK



Ekainaren 16an **Aitor** Niño Santinek 7 urte beteko zituen. Zorionak zure aita eta amaren partetik, opari asko jaso eta ikaragarriko eguna pasa izana espero dugu.

Txapeldun.

URNIETA

ZORIONAK



Joel Planasek ekainaren 27an 8 urte beteko ditu. Zorionak etxeko erregearentzat!!! Milaka muxu erraldoi. Maite zaitugu bihotza!! Aita eta ama.

URNIETA

ZORIONAK



Ariz Irazu Romanek urtetxo bat beteko du ekainaren 29an. Zorionak potxolo eta muxu handiak etxeko partetik eta bereziki Izaro eta Naroaren partetik.

ANDOAIN



ZORION AGUR GEHIAGO

OIER, LORTUKO DUGU!
POXPOLO TA KONPAINIA
IL CIRCO ITALIANO . ELENE ARANDIA
UDABERRI DANTZA TALDEA
JONMAGIC . ARTISTA GEHIAGO
Ekainak 22. igandea. 20:30.
Tolosako Zezen plazan
SARRERAK SALGAI LEIDOR ARETOAN. ORBELA TABERNAN.
ALEGIAKO ROUTE 33 ETA BILLABONAKO AMASA KAFETEGIAN